

puntuua



ELENA LAKA

TOPAGUNEKO LEHENDAKARIA

KIKE AMONARRIZ

TOPAGUNEKO LEHENDAKARITARAKO HAUTAGAIA

**"EUSKALTZALEEN
KOMUNITATEA ERDIGUNERA
EKARRI DUGU"**



PUNTUA 207

2019-09-27 EGUBAKOITZA

Azaleko argazkiaren egilea:

Dani Sanchez

Aurkibidea

- 4 **Bat-batean** Xabier Berasaluze
Leturia
 - 6 **Irudiz** Oteiza gogoan, dantza
tarteko
 - 8 **Mundutik** Kuba: egiazko
Guantanamo
 - 10 **Erreportajea** Klima aldaketa,
pil-pilean
 - 20 **Elkarrizketa** Elena Laka eta Kike
Amonarriz, Topaguneko lehendakaria
eta lehendakaritarako hautagaia,
hurrenez hurren
 - 26 **Osasuna** Freskagarri arriskutsuak
 - 28 **Kirola** Arrasate Eskubaloi Kluba
 - 30 **Debagoiena Eraldatzen** Izena eta
izana bitez
 - 32 **Moda** Unai Telleria moda
diseinatzailea
 - 34 **Motorra** Alaitz Urkiola eta Maider
Usandizaga kopilotuak
 - 36 **Gure artistak** Maddi Arlazon
oñatiarra
- 38 **Kultura** Yogurinha Borova
performer-a
 - 40 **Liburu artean** *La guerra de
Catherine*
 - 42 **Gure altxorak** Eskoriatza: Zubiarte
labea
 - 45 **Teknomania**
 - 46 **Handitzen, handitzen** *Plazan
Bazan*
 - 47 **Jaioberriak**

IRITZIA

- 3 **Nire txanda** Nagore Ipiña *Herri
poema*
- 16 **Hainbat aburu** Naroa Elortza
Gorrotxategi *Agur eta ohore*
- 16 **Eztabaida** Agur disko gogorrei eta
txartelei
- 17 **Xixili** Helena Azkarraurizar
- 17 **Errematea** Resu Abasolo Gallastegi
Zertarako oposizioak?
- 18 **Talaiatik** Rober Gutierrez *Egile eta
eragile*

puntua

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre

Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal

Zuzendaria

Eneko Azkarate

Erredaktore burua

Monika Belastegi

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate

Publizitate arduraduna

Mireia Larrañaga

Kluba eta banaketa

Igone Osinaga

Maketazioa

Aitor Lagoma

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza

Martin, Amaia Mundiñano

Administrazioa

Agurtzane Gaintzarain,

Ane Berezibar,

Iraxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kubxa

Tel.: 943 25 05 05

berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

publi@goiena.eus

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-1509-2014

ISSN: 2443-9738

Tirada: 4.100 ale

Inprimategia:

Gertu Komunikaziobide SL

PUNTUA ez du bere gain
hartzeko aldizkari honetako
orrialdeetan
kolaboratzaileek
adierazitako iritzien
erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Herri poema



NAGORE IPIÑA

Herrian galdu naiz. Ez fisikoki; badakit non nagoen. Herriaren inguruko pentsamenduetan galdu naiz. Herriaren geografia sentimentalean, herriaren sekretuetan, herriaren abstrakzioan aurkitu naiz. Herria, orokorrean; ez zurea, ez nirea. Denak eta bat ere ez...

Gaueko irteerak eta goizeko paseoak, eguerdiko eta arratsaldeko bueltatxoak, erritmo urbanoak, herriko errepideen sinbologia (kamioi, kotxe, motor, autobus –eta eskerrak, bizikletak zein oinezkoak–), pertsonaia enblematikoak, kaleko erakustaldiak eta erakusleihoak, auzoak eta auzoak, etxeak eta etxeak. Herriaren poesia propioan pentsatzen hasi naiz, herriak baduelako berezko neurria, errima eta estetika. Baina konturatu gabe, poeta triste baten azken poema idazten hasi naiz; herriaren beharrak zein herrian bizi direnen behar sozialen konplexutasuna ulertu nahian.

Herriek dituzte oinarri antropologikoak; kontrajarriak eta osagarriak aldi berean. Edo hori dio, behintzat, Lefebvrek. Segurtasuna eta abenturarako grina; egin-beharrak eta jolasak, aurreikuspenak eta ezustekoak, antzekotasunak eta desberdintasunak, isolamendua eta topaketa, indibiduala eta kolektiboa, berehalakotasuna eta epe luzerako perspektiba, iragana eta proiektzioa. Guk sortzen dugu herria eta herriak egiten gaitu herritar. Mundu desberdinen arteko loturak eraikitzen ditugu herrian, edo eraiki beharko genituzke. Eraiki beharko genituzke diot, batzuetan, pertsonen arteko topaketak eta eragina oztopatzen duten muga fisikoz eta sinbolikoz beterik daudelako herriak; homogeneousak diren espazioez osatuak. Herriko aztarnetatik eta nahi kolektiboetatik deskonektatuta dauden egiturak, kontsumo indibidualen motibazioei erantzuten dietenak. Makro-herriak.

Poeta tristearen poemen azken lerroetan, ordea, beti dago esperantzarako hitz-erdi. Herriaren abstrakzio horretan irudikatu daitezke ere mundu ezberdinen arteko loturak ahalbidetuko dituzten azpiegiturak; herri-Wikipedia-fisiko baten antzera. Librea, irekia, onartua, legitimoa. Herriaren geografia sentimentalean aniztasunaren narratibaz eraikitako espazioak eta proposamenak. Badaude horrelako esperientziak, hori dio gure poetak. Gai kolektiboetan bizitzeko eta bustitzeko aukera ematen duten poema berriak, herriaren erritmora mugatzen ez diren eztabaida irribarretsua, herria herri egiten dutenak. Buelatu naiz herrira, sentitzen dut bere geografia orain, baina ez ditut bere sekretuak ulertzen. ■■■

**MUNDU DESBERDINEN
ARTEKO LOTURAK
ERAIKITZEN DITUGU
HERRIAN, EDO ERAIKI
BEHARKO GENITUZKE**

Xabier Berasaluze

'Leturia'

TXOMIN MADINA

ARGAZKIA: KONTRALUZ

Tarrapatan. Pandero baten ibilbidea liburua da musikan hamarkadako esperientzia duen villabonarrak idatzitako lehenena.

Zure liburu eta DVDarekin astebetean ikasiko omen dugu panderoa jotzen. Zientifikoki frogatua? Zientifikoki ez, baina, nik idatzi dudan moduan idatzita, eta jendearekin kontsultatuta, esan dute panderoaren oinarria ikasteko balio dutela. Zazpi ikasgai ditu, azalpen azkar eta garbiekin; horiek jarraitzea nahiko da ikasteko!

Zure ibilbidean zehar izandako hainbat pasarte eta bizipen ere sartu dituzu. Liburu bakarra nahikoa izan duzu horretarako? Pasarteekin bakarrik liburu bat baino gehiago beharko nituzke! Hizkuntzari dagokionez, ikasgaiak eta teknika gehigarriak zuka idatzi ditut, eta pasarteak, bestalde, hika. Hikari garrantzia eman nahi izan diot, gero eta gutxiago erabiltzen da eta.

Lehen aldia duzu idazle moduan. Zela moldatu zara? Egunero idazten dut nik; azken 40 urteetako pasarteak-eta agendatan gordeta ditut: ze gertatu zaidan aurreko egunean, non, norekin... Egin behar dudana izan da gidoi bat prestatzea, eta horien arabera aukeratzea bizipenak. Nobela bat bezala beharrean, bi panderoen arteko elkarrizketa moduan planteatu dut; nire 120 panderoen artean kuttunenak ditudan *Kattun*-en eta *Xarpa*-ren arteko elkarrizketa. Joseba Tapiak eta Xabier Amurizak lagundu didate forma ematen.

Umorez jantzita ei dago liburua. Zure bizitza ere bai? Seriotasuna behar da une batzuetan, baina alde ederra dago beti serio beharrean umore puntu batekin bizitza! Umoreari esker bizitza beste era batera ikusten da, alaitasunarekin. Liburuko pasarte gehienek umorea dute; batzuetan orain ehun urteko kontuez ari naizela dirudien arren, orain 30 urte arte bizi izan ditugu horrelakoak.

Urteek ematen duten perspektibatik, zertan aldatu dira erromeriak? Egun, badira lehengo erromerien modukoak: Iturriozko Bentakoak, Aristerrazun igandero eta jende askorekin egiten

dena... Baina jende gaztea ez dago ohituta musika erromerian entzutera; jendeak tabernak-eta nahiago ditu. Eta gu, neurri batean, moldatu egin gara horretara; trikitia elektronikarekin nahastuta, adibidez. Baina faltan igartzen dut jende gazteak ezagutzea, liburuan kontatzen dudana bezala, zein ondo pasatzen genuen lehengo erromerietan.

Egongo da harrituko denik, baina pianoa izan zenuen lehen instrumentua. Aita eta aitona musikariak ziren, eta etxean instrumentu klasikoak ikastea zen joera; nire kasuan, pianoa. Baina txikitatik musika modu zifratuan ikasi beharra ume batentzat tortura ere bada; afizioa sortu beharrean, musika uztera dakar horrek. Musika, hasieran, belarriz irakatsi behar zaio umeari. Nik pianoa ikasi nuen, eta gero, gitarra. Trikitia ere ikasi nuen, baina, pandero-joleak falta zirela eta, horretan hasi eta 43 urte daramatzat dagoeneko. Pianoa Eguberrietan-eta jotzen dut.

Jo, panderoa. Entzun? Jendea zer egiten ari den jakiteko, kaleratzen den trikiti guztia gordetzen dut ordenagailuan. Baina oraintxe bertan, Vivaldiren partitura bat lantzen harrapatu nauzu. Musika klasikoa entzuten dut, musika zaharra, rocka, Amerikan egiten den *bluegrass*-a...

Zuek bezala festarik festa ibiltzea kontu serioa da? Bai. Beste lanik ez duzunean egiten duzu parranda; baina festara lanera bazoaz, arduratsua izan behar duzu. Alkoholarekin ere ezin zara pasatu, eztarriarendako txarra da eta.

Izen artistiko moduan, Leturia aukeratu zenuen. Zergatik ez Berasaluze, lehen abizena? Nire aita leturiatarren etxera ezkondu zen, eta gu, Villabonan, beti Leturia etxeokak izan gara. Eleuterio Tapiarekin trikitia jotzen hasi nintzenean, *Leturia* deitzen zidan beti, eta horrekin geratu nintzen.

Aizkorrira igo zinen atzo. Oraindik ere sasoian? Bai! Ia egunero egiten dut mendian pare bat orduko buelta txakurrarekin. Eta, tarteka, Txindokira, Aizkorrira, Anbotora... ere joaten naiz lagunekin. Hori bai, hondeatzaile bat gainetik pasatu izan balitzait bezala nago gaur! ■■■



Oteiza gogoan, dantza tarteko

ARGAZKIA: IMANOL BELOKI

TESTUA: ENEKO AZURMENDI

Urteurren berezia da aurten Arantzazuko basilikaren fatxadako eskultura betetzen ari dena, mende erdia baitarama dagoeneko bisitarien begiradak liluratzen. Jorge Oteiza eskultore handiak betirako zizelkatuta utzi ditu Pietatea eta hamalau apostoluak, eta urteurreneko ekitaldietan ezin horiek omendu gabe utzi.

Fatxada egiterakoan, Oteizak aintzat hartu gura izan zituen dantzak eta euskal kultura, eta, hain zuzen ere, hori da 50 urte geroagoko omenaldian Kukai Dantza Konpainiak azaleratu duena: dantza eta euskal kultura. Jon Maya dantzari eta koreografoaren bakarkako emanaldiko momentu hau betikotuta geratu da. Airean, zurrun, dotore. Arantzazura gerturatutakoen begiradak liluratu ditu honek ere.





Egiazko Guantanamo

KUBA



ION LERTXUNDI

KUBAN BIZI DEN ONATIARRA

ARGAZKIAK: I.L.

Guantanamo hitza entzuteak ileak dantzan jarri ohi ditu. Bertako badian dagoen base militar estatubatuarra irudikatzen du adimenak ezinbestean, han gertatu izan diren misterio eta krudelkeriaz jositako istorio ugari entzun baititugu dagoeneko.

Espetxeratze arbitrarioak, tortura, exekuzio, eta abarrez pentsatu ere egin nahi ez dutenek, berriz, *Guantanamera* kanta famatua ekarriko dute gogora berba bera aditzean.

Testu hau, baina, ez da akats baten erruz 14 urtez torturapean izan zuten Younes Chekkouriz ariko, ezta basearen ondoan dagoen Caimanera herrian bizi duten tentsiopeko egunerokoaz ere. Kanta inspiratu zuen baserritar neska hartaz ere ez da ariko, ezta kantua jatorriaz eta jabetzaz dagoen sesio edo kubatar zein amerikar ugariren jabetza aldarrikapenez ere. Karibeko irla handiengan dagoen Mcdonald's bakarrak edo Julio Iglesiasen eta Hertzainak-en arteko antzekotasunaz aritzea interesgarria izan badaiteke ere, egiazko Guantanamok ere merezi ditu lerro batzuk.

Herrialde honetara iristen diren turista gehienak Habanan eta Varaderon pilatzen diren arren, beste alderaino joateko

behar den denbora eta jakin-mina dutenek Kuba ezberdin, errealago eta autentikoagoa ikusteko aukera izango dute. Bertakoek ez dituzte habanarrak alferrik adjektibo itsusiez estaltzen edo Varadero Miami txiki bat dela esaten, zerikusi handirik ez duen beste toki bat baita hura.

Manzanillo, Bayamo, Sierra Maestra, Gran Piedra eta Santiago bera bisitatuz, edo Holguinen Juanica eta Chan Chanen erritmora Alto Cedrotik Marcanera, eta bertatik Cueto eta Mayarirantz ibilbidea egiteak turismo konbentzionalerik irten eta gure bizimoduaren abiadura ezagutzen ere ez dutenen bizitzaz zipriztintzeko aukerak ematen ditu.

Ekialdeko altxorrak

Apur bat urrunduta eta irlaren ekialdeko ertzeraino ailegatzen denak, aurrekoaz gain, paisaia ikusgarri eta espezie endemiko ugari gordetzen dituen Guantanamo probintzia ezagutuko du, tamalez, espetxea edo kanta bezain ezagunak ez direnak.

KUBA EZBERDIN, ERREALAGO ETA AUTENTIKOAGOA IKUSI DAITEKE IRLAREN EKIALDEAN

Guantanamo hiriak xarma berezia du, besteak beste, changui eta son musika estiloen sorlekuetako bat delako. Hala ere, probintziako perla Baracoa da. 1511n Diego Velazquezek sortua, Kubako lehen hiriburua izan zen, Santiagok eta ondoren Habanak ohore hura kendu zioten arte.

Bertatik abiatuz ikus daitezke eremu honek dituen altxor natural gehienak: Toa Kubako ibai emaritsuenaren arroa duen Nipe-Sagua-Baracoa mendilerroa; Alejandro de Humboldt, munduan biodibertsitate eta endemismo gehien duen erreserba naturala den Playa Blanca, Yumuri eta Maguana hondartzak; edo ekialdeko ertza markatzen duen itsasargi magiko bat duen Maisi herria.

Paradisuzko txokoz jositako dagoen leku honetan, ordea, kakao, kafe edo koko landare artean dauden etxebizitza xumeetan bizi diren irakaspenetan aurkitzen dituen norberak betirako oroituako dituen esperientziak. Kale ertz batean eseri, ron baxoerdi bat eskuan hartu, hainbat domino fitxa atera eta beraiekin iritzi eta bizipenak partekatzea besterik ez da behar horretarako.

Bizitzan behin egiteko gauzek zerrenda amaigabe bat sortzen omen dute. Lerro hauengatik ez bada ere, merezi du Kuba eta bere ekialdea zerrenda horretan txertatzea. ■■■



Alejandro de Humboldt Parke Naturala, Guantanamo probintzian.



Hainbat kakao espezie, Cayo Gineko plantazio batean.



Yumuri ibaiaren ahoa.

Klima aldaketa, pil-pilean

Klima aldaketaren kontrako mobilizazio ugari izan dira asteon, eta gaurko, munduko hainbat ikasle mugimenduk, erakunde eta elkartek greba orokorra deitu dute. Izan ere, gaia pil-pilean dabil azken hilabeteetan, eta, adituen arabera, egoera iraultzeko eta erreakzionatzeko tartea oso murrizta da.

Testua: **Josu Bilbao.**
Argazkiak: **BC3, Goiena eta Pinterest.**

Klima aldaketa ez da kontzeptu berria, inola ere ez. 40 urte baino gehiago bueltaka darama gaiak hedabideetan. Baina azken hilabeteetan, eta azken egunetan, bereziki, denen ahotan dagoen gaia da. Udan Amazonas oihanak jaso zituen sute ikaragarriak –oraindik ez dira guztiz itzali–, plastikoa eta bere erabilera murrizteko beharra, ekimenak, akordioak eta neurri edo lege berriak, gas-isurketak gutxitzearen berehalako beharra, poloetan izotz urtzeekin jasotako irudi beldurgarriak... Erlojuko orratzaren aurkako gatazka dela dirudi, eta Klima Leheneratzeko Australiako Zentro Nazionaleko zenbait adituk uztailean kaleratu zuten txostenaren arabera –*Existential climate-related security risk: A scenario approach*. Klimaren inguruko segurtasun arrisku existentziala: agertoki ikuspegi bat–, 2050a jarri dute mugarri moduan. Izan ere, haien aburuz, urte hori izango da itzulerrarik gabeko puntua –lehen, 2100 urtea jartzen zuten–. Hau da, komunitate zientifikoaren ustez, atmosferan pilatzen den CO2 kopuruak industrializazioaren aurretiko balioa bikoizten duenean, klima-sistema ezegonkortu egingo da itzulera gabeko punturaino.

Ikasleen erantzuna

Fridays For Future mugimenduak –Egubakoitzak Etorbizunari Begira, klima aldaketaren kontrako ikasleek bultzatutako mugimendua– mundu mailako greba deitu du gaurko. Iragan egubakoitzean hasi zituzten protestak hainbat hiriburutan, eta



gaurko, Donostiako, Bilboko, Gasteizko, Iruñeko eta Baionako kaleak betetzeko dei egin dute.

Guztira, 5.000 mobilizazio eta ekitalditik gora antolatu dituzte 156 herrialdetan, aste osoan. Ikasleak izan dira mugimenduaren erroa –batez ere, Greta Thunberg suediarrek bultzatu du ekimena–, baina berehala batu zaizkie beste elkarte batzuk ere. Mundu mailako 350 talde ekologistak, 73 sindikatuk, 820 elkarte eta 2.500 enpresak egin dute bat grebari begirako euren manifestuarekin. Grebak Interneten ere izango du oihartzuna, 6.323 webgunek lanuztearekin bat egingo dutela iragarri baitute. Espainian, Klimaren Aldeko Aliantzak eta 300 bat erakundek babestu dute deialdia.

Euskal Herrian ere hainbat elkarte, erakunde eta sindikatuk babesa erakutsi diote ikasle mugimenduari. Esaterako, Ekologistak Martxan, ELA, LAB, ESK, CCOO, Steilas, Ikasle Sindikatua, Euskal Gune Ekosozialista, Greenpeace, Eguzki talde ekologista, Biziz Bizi taldea...

Debagoienean ere hainbat herritan antolatu dituzte klima aldaketaren gainean kontzientziazioa bultzatzeko ekintzak astean zehar, eta Aretxabaletako Plastikoa Buruan taldeak bat egingo dute Fridays For Future mugimenduarekin: "Akzio globalarekin bat egin nahi izan dugu ekintza baten bidez, eta horretarako, ikastetxe eta batu nahi den guztiarekin batera". 18:00etan Aretxabaletako plazatik hasita plastiko bilketa egingo dute, eta 18:30ean plazan elkartu eta batutako plastikoa sailkatu egingo dute. Ondoren, eserialdia egingo dute, komunikatu bat irakurtzen duten bitartean. ■■■

Goian, ezkerrean, ikasleak greban.

Behean, ezkerrean, sutea Amazonas oihanean.

Eskumako irudian plastikoz betetako hondartza bat.

"Euskal Herrian dugun erronka nagusia garraioa da"

UNAI PASCUAL BC3 KLIMA ALDAKETARAKO ZENTROKO IKERTZAILEA

Zergatik dago orain klima aldaketaren gaia pil-pilean? Bat-bateko histeria moduko bat sortu da?

Ez dut uste alarmak orain piztu direnik. Hau malda bat da, eta talaia batera iritsi garela uste dut. Eta hor hasi gara konturatzen, duela hiru hamarkadatik behin eta berriro esaten ibili garela zeintzuk ziren arriskuak eta norantz gindoazen klima aldaketaren inguruan. Beraz, informazio hori guztiori –uraren kutsadura, airearen kutsadura...– sedimentatzen joan da. Belaunaldi berri bat dugu orain, eta gero eta informazio gehiago. Beraz, eszeptizismoaren edo negazionismoaren liskarra dagoeneko bukatu da, denek, politikan eta enpresa munduan ere, onartzen dutelako ez dagoela klima aldaketaren gaineko zalantzarik.

Ikasleen mugimenduak erdigunean jarri du gaia?

Orain, begirada berriro jarri dugu arazoan. Jakin izan dugu arazoa badagoela, baina krisia ere izan dugu... Jendearen arreta banatu egiten da, eta badirudi krisitik ateratzen ari garela. Orduan, fokua berriro klima aldaketan jarri da. Gainera, kontuan hartu behar dugu gero eta ebidentzia zientifiko gehiago ditugula, eta badaude beste bi joera nabarmen: bat, ozeanoetan plastikoaren kutsaduraren alarma piztu dela. Jendearentzat oso gertukoa den zerbaite da, plastikoak egunero erabiltzen ditugulako. Gure portaera ezagutzen dugu eta konturatu gara guztiok dugula



erantzukizuna. Ozeanoak nola dauden ikusten dugu irudietan, edo telebistan, baina baita gertuko hondartzetan. Jendeak *klik* egin duela uste dut. Eta bigarren, giza mugimenduak hasi dira sortzen mundu mailan, Greta Thunberg moduko sinboloekin. Jende gaztea kalera ateratzen hasi da, Euskal Herrian intsumisioarekin gertatu zen bezala. Jendea zerbitzu militarren kontra zegoen, baina ez zen mugitzen, eta, bat-batean, mugimendu oso irudimentsu bat agertu zen. Antzeko zerbaite gerta daiteke mundu osoan. Ebidentziak hain dira handiak, kualitatiboki beste jauzi bat egon da.

"KLIMA ALDAKETAREN GAIA
MALDA BAT IZAN DA ETA
TALAI A BATERA IRITSI
GARELA USTE DUT"

Zeintzuk dira erronkak, Euskal Herrian, epe laburrean?

Nire ustez, Euskal Herrian dugun erronka nagusia garraioa da. Lortzen ari gara, poliki, sektore ezberdinetan isurketak kontrolatzea. Eta teknologia aldetik ere aldaketa industrialak gertatzen ari da. Hala ere, gure eguneroko portaera, garraioa hartzeko orduan, ez da aldatu eta areagotu egin da. Hori da gure Akilesen orpoa. Hor dugu etxeko lan handi bat. Hor atzeraka goaz. Garraioa energian oso intentsiboa den sektorea da, gainera. Energia behar da auto batek metro bat egiteko ere. Euskal Herrian, beraz, garraioaren arazoak gain, garraioaren sektorea birplanteatuko beharko litzateke, pertsonena eta merkantzia. Bestalde, gure hedadura txikia izanik, luraren gaineko artifizializazioa oso handia da. Izugarritzko azpiegitura linealak ditugu, autobideak, trenbideak... Eta horrelako herri txiki batentzako, ematen du gehiegizkoak direla. Hor badaude erabili gutxiko azpiegitura batzuk, eta planifikazioan porrot egin dugu. Planifikatu egin ditugulako beti garapen ekonomikoa oso modu hertsian ulertuta. Industriaren eta enpresen joera ekonomikoen aldekoa, BPG bultzatzeko. Hori garapenaren kontzeptu nahiko makala da. Diru hori beste modu batzuetan inbertitu ahal izango genuke, ingurumenarekiko onuragarriagoak. Horren ondorioak orain ari gara ordaintzen. Azpiegitura handiek garraio pribatua areagotu egiten dute; orduan, jendeak errazago du autoa erabiltzea. Moteldu beharrean garraio mota baten eskaria egin duguna da hori areagotu".

"Berandu hasteak ez du esan nahi dena galduta dagoenik"

ELISA SAINZ DE MURIETA GEOLOGIAN DOKTOREA ETA BC3 ZENTROKO IKERTZAILEA

Zer gertatu da azken hilabetetan klima aldaketaren gaia lehen lerrora etortzeko?

Jendea aldaketa batzuk gertatzen ari direla ikusten hasi da, hala nola tenperaturen igoera eta bero boladak edo bestelako muturreko gertakariak. Horiek gertu sentitzen ditugu, baina badira, noski, larritzekoak diren beste egoera batzuk, Amazonasko suteak, esaterako, baita Artikoko eskualdeetan izandakoak, edota iaz Portugalen ere gertatu zirenak. Klima aldaketak berez suteak sortzen ez baditu ere, hauek gertatzeko baldintzak areagotzen ditu. Greta Thunberg-ek eta ikasleen mobilizazioek ere nolabaiteko eragina izan dutela ueste dut, bereziki, gazteen artean, baina ez soilik. Hala ere, mugimendua Euskal Herrian oraindik nahiko apal ikusten dut, beste herrialde batzuetan ikus daitekeenarekin alderatuz, behintzat. Hau da nire susmoa edo sentsazioa, ez dagoela pizgarri bakarra, baizik eta hainbat baldintzaren ondorio dela oraingo interes edo jakin-mina.

Urte asko daramagu klima aldaketaren gainean entzuten... beranduegi hasi da 'erreakzioa'?

Klima-aldaketaren lehenengo kezkak orain dela 40 urte hasi ziren; beraz, azkar ibili garenik ezin daiteke esan... Dena den, nik

"PREST EGON BEHAR DUGU KLIMA ALDAKETAREN ONDORIOZ JASANDAKO INPAKTUEI AURRE EGITEKO"

uste dut hasieran klima aldaketa ingurumen arazoa zela, eta urruneko gai bat, Artikoa gertatzen zena, baina gure bizimoduetan eragin zuzenik ez zuena. Klima aldaketaren eraginak sistema natural eta sozioekonomiko guztietan eragin dezakeela ikusi ez dugun bitartean, ez dugu arazoa gureganatu. Hala ere, mezu positiboa ere eman nahiko nuke. Berandu hasteak ez du esan nahi dena galduta dagoenik, oraindik gauza asko lor ditzakegulako. Munduko batez besteko tenperatura igoera 1,5 gradura mugatzea oso zaila da, baina Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak (IPCC) 1,5 txostena argitaratu zuenean argi esan zuen: beroketa apur bakoitzak du garrantzia. Edozein kasutan, beraz, eta 1,5eko helburua lortu ezean ere, tenperatura igoera ahalik eta gehien mugatzea da helburua. **Zeintzuk dira erronkak epe laburrean?**

Bi motatako politika multzo ezarri ditzakegu: lehena da ekiditea edo isurpenen murrizketa. Herrialde eta eskualde bakoitzak bere betebeharre aurre egin behar die, ekarpen orokorra txikia bada ere, Euskal Herriaren kasuan bezala. EAEn, isurpen zuzenen 2/3 energia eta garraio arloei dagokie, eta industriari isurpenen %21. Energia nola sortu eta kontsumitzen dugun eta nola mugitzen garen, batez ere, gako izango dira karbono-urriko trantsizioa aurrera eramateko. Honen baitan erronka handia



trantsizioa bidezkoa izatean datza. Kontuan hartu behar dugu lanpostu asko isurpen ugari sortzen dituzten arloetan kokatzen direla. Enpleguan izan daitezkeen inpaktuak zintzoki aztertu behar ditugu, eta inpaktu hauek saihesteko estrategiak diseinatu, trantsizioa izango bada. Bigarren politika multzoa egokitzapenarekin dago lotuta; hau da, klima-aldaketaren eraginei aurre egiteko neurriekin. Zergatik hitz egin inpaktuez eta adaptazioaz? Isurpenak bortizki murriztuko bagenitu ere, aldaketa batzuk abian daude jada, klima-sistemaren inertzia dela eta; esaterako, itsas mailaren igoera. Denbora luzez egokitzapena amore ematea zela ueste bazen ere, Parisko Akordioak aitortzen du politika biek, ekiditeak eta egokitzapenak, eskuz esku joan behar dutela. Beraz, eragin batzuk jasango ditugu, eta inpaktu hauei aurre egiteko prest egon behar dugu. Garrantzitsua da ulertzea gaur egun hartzen diren erabaki askok klima kontuan hartzen ez badute, etorkizunari hipoteka jarriko diezaioketela.

"Hemen kimuak daude, baina serioagoak izan behar dugu"

IÑAKI ETXEBESTE BIOLOGIAN DOKTOREA ETA ERREZ KOOPERATIBAKO KIDEA



Zergatik dago orain gaia pil-pilean? Alarmak piztu dira?

Zaila da arrazoi zehatz bat ematea, faktore askok eraman gaituzte-eta egungo egoerara. Egunotan, Humboldt ikerlari eta esploratzailearen jaiotzaren 250. urteurrena ospatzen da, eta hark antzeman zituen gizakiak eragindako kalteek klima aldatzen zutela lokalki. Ordutik, Zientziak datuak pilatzen jarraitu du. Klima aldaketarekin erlazio zuzena duen tenperaturen erregistroa da datu pilaketa horietako bat. Horri begiratuta, erregistroak daudenetik, azken urteetan errepikatu dira "ekainik beroena", "urterik beroena"... Baina bada beste hanka bat. Internetekin batera, edozein gaitan egindako ikerketen lan-ekoizpena esponentzialki igo da, baita klima aldaketari loturiko gaitetan. Hau da, inoiz ez dugu hainbeste jakin,

eta gizakiaren azken 200 urteetan inoiz ez dugu hainbeste berorik eta hainbeste CO₂-rik izan. Gainera, egoera hau badakigu gizakiak sortutakoa dela. Beharbada, ez da oso ikuspuntu objektiboa izango, baina zergatik hartu duen olatuak tsunami itxura orain, eta ez aurrekoetan, pertsonalki, Greta Thunbergekin pertsonifikatu duen ikasle mugimenduari egotziko nioke. Eta "zergatik ikasi, ikasi dutenei ez badiezue entzuten" da, nire ustez, aldarririk garrantzitsuena. Bestalde, ezin da urte zehatz bat jarri, ez dagoelako hain zehatza izan daitekeen aurreikuspenik, baina 2050, 2040 edo 2025 izan daiteke itzulerarik gabeko puntua mundu osoarentzat. Ekosistema lokal asko guztiz desagertu dira, eta biodibertsitate galera izugarria jasaten gabilta.

Zeintzuk dira erronkak epe laburrean Debagoiengan?

Ohitura batzuk aldatzeak izugarritzko inpaktua izan dezake klima aldaketa baretzeko helburuan: bertakoa kontsumitu; garraiobide publikoak erabili; bidaia luze eta exotikoak baino gehiago, inguruan oporretan geratu... Hiruko erregela: gutxiago kontsumitu, berrerabili eta birziklatu, ordena horretan. Debagoiengan badira kimu batzuk zentzu horretan, baina are serioagoak izan behar dugu. Egiten den proiektu, lan, ekimen, ekitaldi... denek beharko lukete kontzientziario lan bat. Adibidez, hiria txukuntze aldera, ezin dezakegu geroz eta zementu gehiagoz gure herria atondu.

Alderantziz, natura hurbildu behar dugu; edo bertako basoak sustatu eta era egokian kudeatu, bertako lehen sektorea lagundu, babestu eta bertakoa kontsumitu. Ekintza txikiak eragin handia dute. Eta Thunberg berriz... bere hitzaldiak batzen dituen liburuaren izenburuari erreparatu: *Inor ez da txikiegia nabarmentzeko.*

Nola eragin dezakegu bailaran?

Egoera itzultzeko, lehenik, gizarteak oharatu behar du hau ez dela moda edo berri morboso bat. Klima aldaketa eta egungo gure ohituren beste emaitza asko gure oinordekoei utziko diegun mundua da. Ezin dugu horren aurrean geldirik geratu. Bailara mailan aktiboki eskatu behar dugu aldatu daitezkeen ohitura eta ekintza kaltegarri guztiak aldatzen joatea, gure agintariak eredu garri diren ekimenak bultzatzea, hitz politetik harago. Norbanako bakoitzak lehen aipatu ditugun ohitura aldaketak barneratu behar ditu. Kontsumo ohiturak aldatzeak ekarriko du neurri eraginkorra. Errez kooperatiban, gaiari loturiko bi ildo lantzen ditugu: lehena, kontzientziario lanak. Hitzaldiak, txangoak... Debagoiena trantsizio klimatikoko gune bat da, Atlantikotik Mediterraneoara doana, eta oso gune ona da klimak duen eragina azaltzeko. Hemen gertatzen diren prozesuak munduan ere gertatzen dira. Bigarren, basoak, edo, hobeki, landareak, CO₂ metaketa hori optimizatzen laguntzen duten ereduak sustatzen dihardugu, klima aldaketa mitigatzeko bidean".

"EKOSISTEMA LOKAL ASKO GUZTIZ DESAGERTU DIRA ETA GALERA IZUGARRIA JASATEN GABILTA"

"Oraindik ez dugu txipa aldatu"

NEREA LAZPIUR ARRASATEKO UDALEKO INGURUMEN SAILEKO TEKNIKARIA

"Klima aldaketaren eragina dagoeneko igartzen hasi gara, eta, neurri batzuk hartzen hasiak bagara ere, dagoeneko berandu omen da, egindako kalteek, neurri batean, ez dutelako atzera bueltarik. Kontuan izan behar da, gainera, eragin honek inertzia handia daukala, neurri drastikoak orain bertan aplikatuz gero, eragina urte batzuk barru igarriko delako. Sistema ekonomikoa aldatu behako litzateke, petrolioan oinarritutako industriari eta teknologiarri buelta eman, gezurra dirudi, baina oraindik ez dugu pauso hori eman.



Energia berriztagarriak bertan dauzkagun arren, oraindik ez ditugu ezarri enpresetan, etxeetan, mugikortasunean, ekonomia sisteman. Kontsumo ohiturak ere guztiz aldatu

behar ditugu, eta ekonomia kapitalistari buelta eman... Oraindik ez daukagu txipa aldatuta, eta, dirudienez, gizartearen zati handi batek ez dauka ahalegin hori egiteko asmorik", azaldu du Lazpiurrek.

"Mugikortasun eta kontsumo ohiturak aldatu behar ditugu, eta gutxiago kontsumitu zentzu zabalean: elikadura kontsumoa murriztu, bertako janaria kontsumitu, garraio publikoa erabili, bidaiatzeko ohiturak aldatu, hondakinak murriztu, arropa eta oinetako kontsumo arduratsua egin...", gaineratu du Nerea Lazpiurrek.

"Berrikuntza soziala behar dugu"

AIMAR URIBESALGO OÑATIKO NATUR ESKOLAKO IKERTZAILEA

"Hemen ez dago benetako erreakziorik. Gaiak duen dimentsioa eta ematen zaion perspektiba atentzio desbideratze bat da. Huts egiten dabilena ez da gizartearen azaleko aspektu bat, baizik eta bere oinarriko estruktura eta naturarekin duen harremantzeko modua. Krisi ekologikoa sortzen dabilen sistemak ez ditu bere oinarriak zalantzan jarri nahi, eta arazoa ikuspuntu estrukturaletik jorratu beharrean –kapitalaren balorizazio etengabeak dakarren hazkunde ekonomikoa naturaren jazarpenaren bidez–, azaleko erantzunen beharra



aldarrikatzen da: politikarien borondatea, ingurumen hezkuntza, ingeniariak mailako soluzioak, ikerketa zientifikoaren biderkatzea... Konponbide teknokratak dira; sistemaren

logika produktibistak sortzen dituen arazoak sistema aldatu gabe konpontzeko ilusioa zabaltzen da. Desastrea ekidin baino gehiago, desastrea kudeatzea da. Horra hor zientziaren izenean ideologia: datu enpirikoen atzean, propaganda. Kontua da efektuetan gelditzea baino gehiago kausetara jotzea, nola ase gure beharrak autogestio kolektibo bidez. Berrikuntza teknologikoa baino gehiago, berrikuntza soziala behar da: boterea modu askoz horizontalagoan banatzeko sistema berri bat", dio Aimar Urbesalgok.



NAROA ELORTZA GORROTXATEGI

Agur eta ohore

Uztailaren 15etik artikulu hau buruan, baina ezin hitzak topatu, aita.

Bi hilabete pasa dira jada. Bi hilabete Gasteizko ZIUn hil zinenetik. Maite zaitugunez inguratuta. Guztiok batuta, besarkada amaigabeetan murgilduta. Astea ere hala pasa zenuen, anai-arreba eta ilobez inguratuta. Leku hotza epel bihurtu zuten guztiek, belarrira xuxurlatutako abesti iraultzaileekin, irrintziekin, barre algara eta eskertza sentikorrenekin.

Guztiok agurtu nahi zintugun, aita. Maite zaitugula esan, guri eta komunitateari emandako guztia eskertu... eta iristea nahi ez genuenari aurre egiten saiatu. Halaxe darraigu.

Bi hilabeteotan errekonozimendu hitzak jaso eta jaso ari gara, oraindik ere

tantaz tanta iristen ari direnak. Kooperatiben mundutik, euskalgintzatik, herrigintzatik... Baina baita hainbeste lagundu zenienen eskutik ere. Izan ere, herrigintzak izan zintuen, baina baita familiak eta gertukoek ere. Nola lortu zenuen, oraindik ez dakit.

Lasai egon zaitetzke, aita. Ondo ikasi dugu mundu hau hobetzea guri ere badagokigula. Komunitatea txikitasunetik eta umiltasunetik indartuz. Hitzetatik harago, utopia ekintzetatik eraikitzen segiko

UTOPIA EKINTZETATIK ERAIKITZEN SEGIKO DUGU; BAKOITZA BERE TXOKOTIK, GIZARTE JUSTUAGOA IPAR

dugu. Bakoitza bere txokotik, gizarte justuagoa ipar. Euskalduna, abertzalea, langilea... eta feminista. Iraultza horri ere gogoz helduko diogu, aita. Zuk emandako tresnak egungo erronka handiei aurre egiteko erabiliz.

Eta, nola ez, Joanes txikiak ere ezagutuko zaitu. Mundu justuagoarekin zenuen konpromisoa transmititzen ahaleginduko gara. Utopiaren errealista izaten saiaturako gara, txikigintzaren ameslariak, zu moduan.

Mila esker, aita. Mila esker zeuri ere, ama. Aita zena, zuri esker izan zelako. Mila esker etxekoei, lehengusu eta osaba-izebei, lagunei, malkotan eta irribarretan lagun izan zaituztegunoi. Eta Gasteizko profesionalei, bidelagun goxo izan zaretelako. ■■■

EZTABAIDA

Agur disko gogorrei eta txartelei

Erabiltzaileen datu informatikoen %30 hodeian gordetzen dira dagoeneko. 2024rako, datuen %88 hodeian gordeko ditugula aurreikusten dute. Zer onura eta arrisku ditu?



AITOR KAPEROTXIPI
INFORMATIKARIA

"Informazioa esku-eskura, edozein leku eta gailutan izango genuke. Datuak ez galtzeko modu egokia da, baina, denon eskura egoteko, kuotak merkatu egin beharko dira. Dena den, informazioa *lapurtzeko* arriskuak ere badaude, dena hodeian izanda".



ONEKA ANDUAGA
HERRITARRA

"Ez naiz dokumentuak hodeian gordetzearen oso aldekoa; onura baino arrisku gehiago ikusten dizkiot. Azkenean, informazio garrantzitsu larregi ematen diogu makina bati, eta batek jakin zeinek eta zertarako erabiliko duen informazio hori guztiori".

XIXILI

HELENA AZKARRAGAUZAR



ERREMATEA

RESU ABASOLO
GALLASTEGIZertarako
oposizioak?

Lan prekarioa nagusitzen den garaian, jendeak duen desiorik handiena da lanpostu finko bat izatea. Horretarako, ezin aukera hobea eskaintzen dute deialdi publikoek. Ikusi besterik ez dago zenbatek eman zuten izena Osakidetzakoan, Ertzaintzakoan eta Hezkuntzakoan, esaterako. Helburua funtzionario maila lortzea bada, aukera primeran dago, baina helburua bada hoberen prestatutako profesionalak hautatzea, prozedura guztiz zalantzan jartzen dut.

Adibidez, hezkuntzara begira jarrita, hezitzailearen profila multifaktoriala denez, nola neurtu eta ikusi proba batekin irakaslegai baten gaitasunak, harremanetarako trebetasun sozialak, umorea, lankidetzaz, enpatia, didaktika artelan bilakatzeko jaiotasuna, e.a.

Egungo ereduak lehengotik edaten du. Dena buruz ikasi ondoren, ahoz edo idatziz errepikatu egin behar da. Nahiz eta ikasten dituzten gauzak berritzaileak izan, azken finean, buruz ikasi eta buruz bota.

Kanpo azterketen emaitzek astintzen gaituztenean, oso ohikoa da heziketaren kalitateaz jardutea. Ez al da egongo, arrazoen artean, irakasleen aukeraketa? ■

MIKEL ZUMALDE
IKASLEA

"Segurtasun aldetik, aukera ona izan daiteke ia guztia hodeian gordetzea. Gainera, espazioa aurreztuko genuke. Dena den, Internetetikiko dependentzia sortzeko arriskuan egongo da subjektua; izan ere, gorde duen hori berreskuratzeko, konexioa eduki beharko du".

INES ARANO
LANGILEA

"Datu guztiak eskura izan ditzakegu hodeiari esker, edozein unetan, edozein lekutatik eta edozein gailuren bidez. Horretaz gain, datuak galtzeko arriskurik apenas dago. Arriskua gehiago etor daiteke erabiltzaileoi lapurtzen diguten informazioaren ikuspuntutik".

Egile eta eragile



ROBER GUTIERREZ BAI EUSKARARI ELKARTEAREN ZUZENDARIA

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak Hizkuntza Eskubideak Euskal Herrian 2018an txostena aurkeztu du.

Herritarrek helarazten dizkioten bizipenetan oinarrituta, hizkuntza-eskubideei buruzko argazkia eskaintzen du urtero Behatokiak.

Agerian geratu da, beste behin ere, ahoz zein idatziz euskaraz jarduteko zailtasunak daudela, eremu eta maila guztietan, mota guztietako zerbitzu eta jardueretan, baita lan esparruan eta kontsumo harremanetan ere.

Testuinguru honetan, administrazioen esku-hartzearekin batera eta herritarren eragite gaitasuna baliatuta, azpimarratu behar da enpresek, saltokiek eta era guztietako entitateek duten erantzukizuna.

Era berean, babestu eta sustatu behar da alor sozioekonomikoan euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurriak garatzen laguntzen duten Bai Euskarari

Ziurtagiria bezalako ekimenen balioa ere. Euskaraz lan egin ahal izateko, euskaraz saltzeko eta erosteko, euskaraz kontsumitu ahal izateko, finean, euskaraz lan egiteko eta bizitzeko baldintza egokiak sortzen laguntzen baitute.

Bai Euskarari Elkarateak, ziurtagiriarekin batera, bestelako proiektuak ditu alor sozioekonomikoan euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeari begira.

Horien artean, Euskaragileak enpresa batzordearen lana bereziki agerrarazi beharrekoa da. *Bai* aldizkariaren azken zenbakian protagonismoa eskaini diogu, garrantziko baiteritzogu enpresa traktore hauek egiten ari diren lana gizarteratzeari.

Gogorarazi nahi dut Bai Euskarari Elkaratearena dela bide-erakusle hauen batzordea dinamizatzearen ardura, oraingoz administrazioen laguntzarik gabe.

Egile eta eragile dira Euskaragileak. Hizkuntza kudeaketan aurreratuta dauden eta eredugarri diren

enpresa hauen gizarte erantzukizunetik, euskararen normalizazioan eragile izateko funtzioa betetzea proposatu zaie.

Alegia, denok erabiltzen eta kudeatzen ditugu hizkuntzak gure egunerokoan eta, hori modu batera edo bestera egiteak, guztiok bihurtzen gaitu norabide bateko edo besteko eragile. Hortaz, enpresa hauen lidergoa aintzat hartuta, lan munduaren euskalduntzean urrats berriak emateko aukera zabaldu eta biderkatu daiteke.

Batzordea osatutakoan, denon artean aztertu eta zehaztu ziren Euskaragileen funtzioak: eragile aktibo izatea, lan-munduaren euskalduntzean zeresana duten gainerako eragileen hizkuntza-politiketan eragiten saiatuz; eredugarri izatea, enpresen arteko sinergiak sustatzea, enpresa berriak erakartzea, bitartekari eta sustatzaile izatea eta eginiko bideari balioa ematea, prestigiatzea eta onurak erakustea.

Halaber, ekimen ugari abiatu dira enpresa batzorde



EUSKARAGILEEN FUNTZIOAK: ERAGILE AKTIBO IZATEA, EREDUGARRI IZATEA, BITARTEKARI IZATEA...

honetatik hornitzaileengan,
gainerako enpresetan eta
langileengan eragiteko.

Gure aldetik, euskarak eremu
sozioekonomikoan duen
egoeran jauzia emateko
lanean segituko dugu,
ekarpena egiten jarraitzeko
konpromisoa berresten dugu,
baina, argi dugu horretarako
bezero, hornitzaile,

zuzendaritza-talde, langile
eta administrazioaren
bultzada ere ezinbestekoak
dira.

Ekin diezaiogun helburu
berarekin lanean ari garenon
arteko esperientzia,
ezagutza, praktika on eta
erronkak elkarrekin
bideratzeari, aurrean dugun
bide malkartsua arinduko
baitugu hala. ■■■



Elena Laka eta Kike Amonarriz, Errekalde jauregian.

"2020ko Euskaraldian pauso bat aurrera emango dugu indartsuago eta sakonago"

ELENA LAKA TOPAGUNEKO LEHENDAKARIA

KIKE AMONARRIZ TOPAGUNEKO LEHENDAKARITARAKO HAUTAGAIA

Euskaltzaleen Topaguneak lehendakaria aldatuko du gaur, barikua, Andoainen egingo duten batzar orokorrean. Bost urteren ostean, laga egingo du kargua Elena Lakak, eta Kike Amonarrizek ordezkatuko du. Testua: **Monika Belastegi**. Argazkiak: **Dani Sanchez**.



Elena Laka 2014ko apirila ezker
Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari
izan da, eta utzi egingo du kargua.
Euskaltzaleen Topaguneko
lehendakaritzarako hautagai moduan
aurkeztuko da Kike Amonarriz, gaur,
Andoainin egingo den batzar nagusian.

Hark hartuko du Lakaren testigua.

Elkarrizketa abiatzeko esan behar dugu Bergaran gaudela, eta ez da kasualitatea Euskaltzaleen Topaguneaz berba egiteko Bergaran elkartu izana.

ELENA LAKA: Bai, eta Bergarak badu esanahi berezi bat Euskaltzaleen Topagunearentzako, ezta? 1996an tokian tokiko euskara elkarteek pentsatu zutenean edo pentsatu genuenean tokian tokiko egitura hori gainditzea eta horrek batuko zituen egitura nazional bat sortzea, sorrera bilera hori Bergaran egin zen. Horregatik badauka esanahi berezia..

KIKE AMONARRIZ: Bai, eta, gainera, gogora datozkigu pertsona batzuk, ezta, Elena?

E.L.: Bai, nik gogora ekarri nahi nituzke dagoeneko gurekin ez dauden Eibarko eta Tolosako pertsona oso esanguratsuak. Nola haiek amestu zuten Euskaltzaleen Topagunea

mugimendu nazional bat, tokian tokiko mugimendua gaindituko zuena. Etxe hau eraiki ahal izateko haiek jarri zituzten oinarriak.

K.A.: Bai, eta haiei eta haiek bezalako pertsona askori esker gaude hemen. Mugimendu oso polita sortu zen, eta gaur egungo Topagunearen errealitatea ulertzeko uste dut garrantzitsua dela jabetzea Topagunea ez zela sortu aurrena eta gero elkarteak etorri zirela. Ez. Kontrako bidea izan zen, oso behetik gorakoa. Elkarteak zeuden hainbat lekutan, eta elkartu beharra eta hura koordinatu beharra ikusi genuen. Nolabait, federazio bat antolatuta beharra. Horrek azaltzen du zergatik euskara elkarteek daukaten horrelako nortasun propio indartsua, nire ustez, gero eta gutxiago, baina oso prozesu polita izan da ikustea nola konbinatu talde bakoitzaren indarra, autonomia eta nortasun hori, mugimendu zabal batean.

E.L.: Gainera, atzean utzi ezin dezakegun nortasun bat dela uste dut. Erabat garrantzitsua da elkarte bakoitzak eta herri bakoitzak bere nortasuna izatea. 90eko hamarkada hasiera horretan elkarteak herriz herri sortzen hasi ginenean, denak Arrasateko AED elkartearen

ondotik, bakoitzak izan zuen bere ibilbidea, eta orduan zaila zen pentsatzea egitura nazional bat izan zitekeenik. Gero, Topagunea sortu zenetik 22 urte pasatu dira jada, eta, behetik gora sortutako federazio bat izanik, talde-lan bat eginez eta gizarte mugimendu moduan. Uste dut Euskaltzaleen Topaguneko balio garrantzitsuenetako bat hori dela, ez dela erakunde pertsonalista.

Biak ere beteranoak Topagunean, eta zure kasuan, Elena, 2014a ezkerro lehendakaria. Oraintxe lagako duzu; zergatik?

E.L.: Bost urte badira zerbait; kar, kar, kar. Lagatzeko momentu bat badela uste dut. Bost urtean ibili naiz, ahal izan dudana neurrian, buru-belarri sartuta eta inplikaturatuta, eta orain, badator beste lehendakari bat. Gauza berriak egingo ditu, aro berri bat dator, eta jauzi bat aurrera egingo duena. Nik uste dut nire lana egin dudala, eta gizarte mugimenduetan aldaketa hauek gertatzea oso onuragarria dela uste dut. Pertsonen osatutako erakunde bat da, eta nire ustez ezin da egonkoritu pertsona bat, ez delako ona. Nire lana egin dut, oso-oso pozik egin dut, eta Euskaltzaleen Topaguneaz berba onak besterik ez dut esateko, eta orain, Kikeri pasatzen diot lekukoa. Eta, gainera, hau ez da nire lana. Hemen boluntario lan bat egiten dut, oso gustura, uste dut aktibista moduan edozein pertsonari eskatu eta eman beharreko lan bat dela, eta, hala ere, jaso egiten da gehiago eman baino. Orain, albotik laguntzen jarraituko dut. Orain, Kike Amonarrizen eta bere zuzendaritza batzordearen esku geldituko da dena.

Balorazio positiboa egiten duzu, Elena? Pozik uzten duzu? Arantzaxoren bat?

E.L.: Bai, jakina geratu direla gauzak. Balorazioa, modu pertsonalean eta aktibista moduan, eta mugimendu moduan intentsoa eta positiboa izan da. Maila pertsonalean geratzen naiz izandako harreman guztiekin, bai gizarte mugimenduekin, eragileekin eta erakundeekin. Fase ezberdinak igaro ditugu, baina guztiak emankorrak eta uste dut oso aberatsak izan direla. Euskaltzaleen Topaguneak jauzia eman duela uste dut. 2014an, Mikel Irizar orduko lehendakariak zioen etorkizuna genuela irabazteko, eta uste dut pusketatxo bat hortxe irabazi dugula. Jauzi handia egin dugula uste dut. Euskaltzaleen komunitatea erdigunera ekarri dugu eta hartzen dihardugu lekua, eta ez da inork ematen digulako, baizik eta guk egin dugulako jauzi hori. Hori egiten ari gara,

baina oraindik asko dago hobetzeko. Arantzak? Baita ere. Uste dut mugimenduaren kohesioan badagoela oraindik sakontzeko eta lantzeko tartea. Nik izan ditudan mugak nire jardun profesionalagatik izan dira. Boluntariozko lan batean ibili naiz, eta 24 ordu ditu egunak, ez gehiago. Baina mugimenduak hemendik aurrerako jauziak talde berriarekin egingo ditu. **Esku onetan uzten duzu lekukoa, eta zuk nola hartzen duzu, Kike?**

K.A.: Ba, ilusio handiz! Elenak esan duen bezala, bost urte hauetan berak lideratu duen mugimendu guztia ikaragarria izan da. Jauzi ikaragarria eman dela uste dut, ilusio handiz bizi izan dugun jauzi bat, gainera. Aurreko lehendakari guztiak epe bat bete dutela ikusi dut, eta beti gorantzako mugimenduan. Fernando Munioz-gurenekin mugimenduaren sorrera etorri zen; gero, Joxe Mari Muxika etorri zen, eta kooperatibismoa zekarren kudeaketarako ikuspegia txertatu zuen, eta herri komunikabideen esparruari ere eman zion kohesioa eta indarra. Karmen Irizarren garaian, lehenengo kongresua egin zen, eta hor Oinarriparrak jarri ziren eta jauzi bat emateko gogoa piztu zen. Gainera, neurri batean, Karmen Irizarri esker nago gaur hemen. Gogoratzen naiz bera eta Jasone Mendizabal etorri zitzaizkidala sortu nahi zutelako Topalabea taldea. Ni orduan telebistan nenbilen, eta berriro txertatu nintzen mugimendura. Gero, Mikel Irizar etorri zen eta zoru komunarekin eta ideia berriekin salto handirako lurra ondu zuela uste dut, eta salto handi hori Elenarekin heldu da. Batetik, mugimendua zabaldu egin da Euskaraldiak ekarri duen guztiarekin. Eta ez bakarrik euskal komunitateak hartu duen protagonismoa, baizik eta horrek aurretik zuen sukalde-lan guztia, elkarlanaren ideia guztia, Euskal Herri osoan egin ahal izatea. Nire ustez, Elenarekin diskurtso aldaketa bat ere etorri da. Euskararen inguruan hitz egiteko modu berri bat, eta Elenak euskalgintzaren bilakaera hori guztiori irudikatu du. Orain, nik ilusioarekin hartuko dut, baina baita erantzukizunarekin, oso puntu onean, gainera, sekulako lana egin delako urte hauetan guztietan. Lan horri beste urrats bat, beste salto bat eman behar zaio, eta mugimendua zabaltzearen bidetik eta indartzearen bidetik ikusten dut nik. Euskaraldiak euskalgintzaren eragin ahalmena biderkatu du, eta elkarlanaren bidea sakondu egin behar da, eta horri edukiak,



**"MUGIMENDUAREN KOHESIOAN
BADAGO ORAINDIK SAKONTZEKO
ETA LANTZEKO TARTEA"**

**"2017A GIRO ALDAKETARAKO ETEN
BAT IZAN ZEN; EGUNGO EGOERA
ZUBIENA DA, SAREAK EGITEARENA"**

**"GAZTEEK EUSKARAZ EGIN AHAL
IZATEKO AUKERAK SORTU BEHAR
DITUGU, KOMUNITATE BAT ESKAINI"**

ELENA LAKA

eduki sakonak, eman behar zaizkio. Erronka, beraz, orain arte lortutakoa zaintzea izango da, eta horri etekina atera behar diogu.

E.L.: Zu izango zara lehendakaria eta lideratuko duzu taldea, baina sekulako lantaldea dago Euskaltzaleen topagunean, hori esan beharra dago. Zuzendaritza batzordetik hasita, lantaldeak, euskara elkarteetako boluntario eta langileak, hainbat herritan sortu diren Euskaraldiko batzordeak... Jendetza ikaragarria dago momentu honetan, Euskal Herri osoan, gainera, sekulako lana egiten. Hau gizarte mugimendu bat da, eta jende asko mugitzen da norabide berean.

Euskaraldia aipatu duzu, Kike, eta izan duen garrantzia. Uste duzue Euskaraldiak euskalgintzari eraldaketa ekarri diola? Zer ekarri dio?

E.L.: Euskaraldia prozesu luze baten azkeneko begia izan da, nahiz eta jarraipena izango duen gerora. Ez da horrelako batean sortu. Euskaltzaleen Topagunean lan handia egin da aurretik. Lehenengo, mugimenduaren barruan; eta gero, euskalgintzako gainerako eragileekin, erakundeekin... Egin den lana, sortu den giroa... horren ondorio izan da Euskaraldia. Duela hamar urte Euskaraldia ezin izango zen egin, ia seguru, beste egoera batean geundelako. Eta egoera aldaketa horri denok egin diogula mesede uste dut: bai erakundeek, bai gizarte eragileek, eta baita euskaltzaleen mugimenduak. Bakoitzak bere aldetik jarri du, eta 2017a uste dut izan zela giro aldaketarako eten bat, konfiantzan oinarritutakoa. Gaur egungo egoera zubiena da, sareak egitearena. Eta elkarlanaren bitartez Euskal Herria euskalduntzea.

Hortaz, eragileen eta erakundeen arteko elkarlana benetakoa izan da?

E.L.: Elkarlana edo zubigintza esaten dugunean eta egiten ditugunean argazkiak horren inguruan, ez gara bakarrik titular batez ari, ez gara bakarrik argazki batez ari. Horrek, barruan, benetako gauzatzea du, eskuz esku elkarlanean gaudelako konfiantza osoz. Erabat garrantzitsua da konfiantza hori, norberak bere esparrua gordez eta elkarlanean arituz. Horrek ekarri ahal izan duena ikaragarria izan da, eta ondorioa Euskaraldia izan da. Zer gertatu da? Elkarlan horren ondorioz sortu dugula ariketa sozial bat eta 200.000 lagunek eman dutela izena Euskal Herri osoan.

Zer-nolako aktibazioa, ezta?

K.A.: Nik uste dut, gainera, inork ez genuela espero horrenbestekoa izango zenik.

E.L.: Zerbait handia espero genuen, baina ikaragarria izan da eta ez da horretan bukatu. Orain, 2020ko Euskaraldia etorriko delako, entitate gehiagorekin, herri batzorde gehiagorekin, eta helburua, gutxienez, jende kopuru berak parte har dezala. Hori posible egitea 2020an, 1996an oraindik gure herrietako elkarteak txoko batean zeuden momentuan... bada aurrerapausoa.

K.A.: Bai. Eta egin kontu, azken aurreko Korrikan erakundeen eta euskalgintzako eragileen artean egin zen kilometro bateratua. Hura izan zen, seguru aski, elkarlanaren lehen argazki soziala. Nik ez nuen espero Euskaraldian hainbeste jenderik parte hartuko zuenik. Ezta Euskal Herri osoko erakundeen elkarlana horren sakona izango zenik. Euskaraldiak Euskal Herri osoa bisualizatu du. Hor zeuden Iparraldeko erakundeetako ordezkariak, EAEko ordezkariak, Nafarroakoak, eragile sozial guztiak batera. Argazki horiek ez ziren posible duela hamar urte, arrazoi askorengatik. Hurrengo erronka izango da, beraz, iritsi garen puntutik harantz egitea. Eta harantz esan nahi du sakonago, indartsuago eta zabalago.

Zeintzuk izango dira 2020ko Euskaraldirako erronka zehatzak, orduan?

K.A.: Entitateetara goaz. Entitate esaten dugunean, edozein talde egituratu da. Izan liteke enpresa handi bat, txaranga bat, ikastetxe bat edo yoga talde bat. Entitate horietan pertsonak daude, eta, orduan, bilatzen dena da euskaraz aritzen diren ariguneak identifikatzea. Labur esanda. Horrek inplikatzan du entitate horiek barne-hausnarketa bat garatu beharko dutela esateko "guk ere aurrerapauso bat eman nahi dugu", eta, ahobizi eta belarriprest rola pertsonak aukeratu genituen bezala, entitate horretako gune batek edo entitate osoak erabaki beharko du euskaraz egin daitekeen gunerik duen ala ez, gune hori osatzen duten guztiak euskaraz ulertzen dutelako. Edo beste kanpoko harremanetan ere euskaraz egin dezaketen pertsonak daudelako. Hori, batzuentzat, urrats erraza izango da, baina Baionatik Abletaseraino, eta Muskiztik Santa Graziraino errealitateak oso-oso anitzak dira, eta entitate txikiak eta handiak daude. Guk ahal dugun guztietara heltzeko borondatea dugu. Baina horrek ere eskatzen du gizarte eragileen eta erakundeen arteko funtzioak ondo zehaztea, era guztietako entitateez hitz egiten ari garelako. Inplikazioa, beraz, handiagoa izango da. Horrek



"ELENAREKIN DISKURTSO ALDAKETA ERE ETORRI DA; EUSKALGINTZAREN BILAKAERA IRUDIKATU DU"

"EUSKARALDIAK EUSKALGINTZAREN ERAGIN AHALMENA BIDERKATU EGIN DU"

"2020KO EUSKARALDIAN ENTITATEETARA GOAZ; ETA ENTITATE EDOZEIN TALDE EGITURATU DA"

KIKE AMONARRIZ

esan nahi du pauso bat aurrera indartsuago eta sakonago emango dugula. Eta hori lortzen badugu aurrekoan lortu genuenaren antzeko tamainan, nik uste dut bide oso indartsua zabaltzen dela euskalgintzarentzat. Eta horrek energia kolektibo ikaragarri handia sor dezake.

E.L.: Bai, horrek espazio berriak irabaztea ekarriko du. Eta gero, bigarren gauza bat, belarriprest figura arigune horietan zabaltzen bada, horrek ekarriko du euskaraz egin nahi dugunok gero eta espazio gehiago izatea euskaraz aritzeko.

Belarriprest figura horrek, ulertzeko gaitasun horrek, bermatzen dit niri, euskal hiztun moduan, edozein tokitan euskaraz jarduteko gai izatea. Izan nire komunitateko bileran edo Iberdrola dorrean gestio bat egiteko, edo Ablitasko udaletxean topatzen badut belarriprest bat, euskaraz ulertzeko gai dena, horrek bermatuko du nik euskaraz egitea eta askatasun hori izatea. Hori ikaragarria da, espazio guztiak irabaziko ditugulako Euskaraldiko entitateen bidez.

K.A.: Eta horrek aktibatzen du jende bat, beharbada, orain arte uzkurturna egon dena. Bada jende asko euskara ikasten denbora pasa duela, urteak pasa dituztela. Zenbat jende dugu euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko gai dena eta egunerokoan erabiltzen ez duena, lotsatzen delako, beharrik sentitzen ez duelako, ingurukoan artean ez duelako aparteko girorik ikusten. Jende hori guztiori aktibatzen badugu, bai norbanako gisa eta bai entitateen barruan saltoa ikaragarri handia izan liteke. Hurrengo Euskaraldian sakontzeko aukera ikaragarria izan dezakegu.

Topagunearen azken lan-lerro nagusia Euskaraldia izan da, baina baditu beste batzuk ere. Bere jardueraren zati garrantzitsu bat betidanik kultura eta aisialdia ere izan da. Azken urteotako proposamen asko gazteei zuzendutakoak izan dira. Nola ikusten dituzue belaunaldi gazteak?

E.L.: Arriskutsua da belaunaldi gazteak edozein orokortasunetan sartzea, ez baita gauza bera 13 urteko bat edo 20 urteko bat, edo herri bateko bat eta beste bateko bat. Gazteek, oro har, hezkuntzan euskara jaso dute. Beraz, ia %100 euskara ulertzeko gai dela esan daiteke. Ez dut uste hitz egiteko gai direnik denak.

K.A.: Bai. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako iparraldean, ia-ia ezagutzaren unibertsalizazioan gaude, 25 urtetik beherakoan. Nafarroako zona mistoa esaten zaion horretan ere, gazteen artean ezagutza nahiko altua da. Iparraldean, oraindik kopurua txikian izan arren,

badoa hobetzen. Adin horietan potentzialitate ikaragarria dugu.

E.L.: Jende horri komunitate bat eskaini behar diogu. Gasteizko auzo baten euskaraz ikasi duen eta euskara ulertzeko eta hitz egiteko gai den ume batek ez badu gero non erabili, alferrik ari gara hainbeste baliabide erabiltzen gero alferrik xahutzeko. Hori da, beraz, gure komunitatearen zereginetako bat. Jende horri komunitate bat eskaintzea, aukera batzuk ematea. Eskaintzen badizkiegu, eurek topatu beharko dute bidea. Guk ere gazteak ezin ditugu derrigortu bide bat aukeratzeko. Bestalde, gazteek hitz egiten dugu, baina momentu honetan populazioak gehiago jotzen du goitik behetik baino. Euskal Herrian, oro har, jendea nagusia da, eta gizartearen eragin handia duen jende heldu asko dugu. Horiei ere aukerak eskaini behar zaizkie gure komunitatean aktibatzeke eta aktibista izan daitezen euskararen munduan. Euskaltzaleen mugimendutik horiei ere bide emateko aukera asko ditugula uste dut.

K.A.: Gazteei buruz hitz egiten denean... anekdota bat kontatzea gustatuko litzaidake. Galtzaundiko azken zuzendaritza duela gutxi berritu zen eta gazte asko sartu da. Emakume gazte asko sartu da. Eta azkenengo zuzendaritzan gure kudeaketa plana errebisatzen ari ginela, partaide guztiok gure ekarpenak egin genituen, eta esaldi bat irakurri izanaz poztu nintzen: "Nola lortu helduek euskaraz gehiago egitea?". Gazte batek egin zuen ekarpena izan zen, eta esan nion: "Begira, ez dut inoiz entzun esaldi hori helduak hitzarekin".

Horrek ikuspegi aldaketa bat datorrela esan nahi du, eta ikuspegi aldaketa horrek esan nahi du: "Zuek zarete euskaraz hitz egiten ez duzuenak edo gutxi egiten duzuenak, eta hasi adibide ona ematen". Gure belaunaldiak bi erantzukizun handi ditu, euskaldunak ala erdaldunak izan. Bata da ahalik eta euskara gehien egitea eta bigarrena, baldintzak sortzea askoz ere euskaldunagoa den belaunaldi berri horrek euskaraz egin ahal dezan. Hor mezu indartsu bat dago entitateei begira. Hau da, "nahiz eta zuek egiteko gai ez izan, aukerak sortu behar dituzue, eta hori bada zuen erantzukizuna datozen belaunaldiak aukerak izan ditzan". Horregatik, oso itxaropentsu nago gazte munduari begira.

Elena, akaso, elkarrizketa itxeko, gomendiorik edo aholkurik lehendakari berriarentzat?

E.L.: Disfrutatzeke, eta seguru lan ikaragarria egingo duela. Eta ez du beharrik izango, baina badaki non nagoen; kar, kar, kar. ■■■

Azukre gaindosia

FRESKAGARRI ARRISKUTSUAK



MIREN RODRIGUEZ EROSKI CONSUMER
ARGAZKIA: ELEVATE

Pertsona batek lata bat ireki eta freskagarri azukretsu bat edaten duen aldiro zazpi edo zortzi azukre koskor hartzen ditu, markaren arabera. Egunean bi lata hartuz gero –nahiko ohikoa izaten da–, urtearen buruan 5.475 azukre koskor metatu izango ditu gorputzak. Ia 22 kilo azukre.

Epe ertainean eta luzean ondorio hondagarriak eragiten ditu ohitura horrek milioika pertsonaren osasunean. Medikuntzak ebidentzia oso argiak ematen ditu. "Ikusi da karbohidrato sinple asko hartzeko joera duten pertsonak gizenagoak direla, hipertentsioa eta hipertrigliceridemia izaten dutela, insulinarikiko erresistentzia agertzen zaiela eta jaitsi egiten zaizkiela HDL –kolesterol ona– mailak. Horrek guztiak izen bat dauka: sindrome metabolikoa edo 2 motako diabetesa agertu aurreko fasea", azaldu du Kordobako Reina Sofia ospitaleko ikerkuntza

biomedikuko Maimonides Institutuko zuzendariorde zientifiko Jose Lopez Mirandak.

Onurarik ez

Hori gertatzen da gorputzean edari horiek maiz samar hartuta, baina pertsona baten osasuna arriskuan ote dago noizbehinka freskagarri azukretsu bat hartzeagatik? Medikuntzak galdera horri erantzun bat eman ahal izateko, zehaztu egin beharko litzateke zer den noizbehinka, eta hori ia ezinezkoa da; izan ere, batere osasungarriak ez diren ohiturak zurrizko erabiltzen da. Adituek diote kontsumoa esaten dena baino askoz ere handiagoa izaten dela egiaz.

Medikuntzak frogatu du, gainera, lata bat irekitzeak ez

**KALKULATZEN DA
EGUNEAN BI LATA
EDANDA URTEAN 22
KILO AZUKRE
IRENSTEN DIRELA**

dakarrela inolako onurarik. Egia da kolazko edari batek zertxobait igo dezakeela arteria tentsioa kafeinatik datozen suspergarriak dituelako. Dena den, ez da inolaz ere tratamendu gisa erabili behar. Profesional batek esan behar du zer egin hipotentsioarekin.

Era berean, nahiz eta halakoak entzun, edari isotonikoak ez dira komenigarriak beherako akutua tratatzeko. Egoera horietan, gorputzak ura eta potasioa galtzen ditu, nagusiki, eta aztergai ditugun produktu hauek ia ez dute horrelako konposaturik. Are gehiago, edari horiekin larritu egin dezakegu arazoa. Hainbeste azukre daukatenez –4,4 gramo 100 gramo bakoitzeko–, organismoak ura askatu behar izaten du, eta horrek areagotu egin dezake beherakoa.

Gaitz horiek agertzean, ahotik hartzeko gazurak dira aukerarik onena gorputza berriz hidratatzeko.

Azukrea edan egiten da
Espainian edan egiten da azukrea. Azken hoge



Askotariko azukredun edariak, apalategi batean.

urteetan, %8tik %14ra igo da diabetesa herritarren artean, eta horrek argi erakusten du edari azukretsuek eta gisako produktuek zer-nolako eragina daukaten osasun publikoan.

Espainiako nutrizio fundazioak koordinatutako Anibes izeneko ikerketak ondorioztatu zuen egunerokoan hartzen diren edariak ematen dutela barneratutako azukrearen heren bat. Herritarren kontsumo ohiturak eta bizi estiloak aztertzeke egin zen ikerketa, eta zenbat makro-

mantenugai eta mikro-mantenugai hartzen diren ikusteko. Espainian arlo horietan egin den ikerketarik handiena izan da.

Faktore bat nabarmendu du besteen gainetik eta bat etorri da Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) egiten duen balorazioarekin: edari azukretsuen kontsumoa handitzea lotuta dago gero eta kalitate apalagoko dieta egitearekin, non bazterrean gelditzen ari diren osasunerako funtsezkoak diren elikagai batzuk; esaterako, esnea.

OMEk bere jarraibideetan dioenez, emaitza argia ekarri du joera horrek: "2 eta 18 urte bitarteko neska-mutikoak pisua hartzen ari dira".

Murriztu kontsumoa

Lizentzia atera ostean, Jose Lopez Miranda ikerlaria bi urtez izan zen Ameriketako Estatu Batuetan bizi izaten. Berehala ohartu zen azukrearen arriskuen inguruan: "Ordurako, gizentasun epidemia bat jasaten ari ziren, eta izugarri ugaritu ziren bihotz-hodietan sortutako arazoak". ■

Harrobia berreskuratzen

NESKEN BI TALDE SORTU DITUZTE ARRASATE ESKUBALOI KLUBEAN

ENEKO AZURMENDI

ARGAZIAK: E.A.

Baziren urte batzuk Arrasate Eskubaloi Klubean nesken talderik ez zela, baina azken bi urteetan bi sortu dituzte, infantil eta kadete mailetan, eta badirudi pixkanaka harrobia lantzeko moduan izango direla aurrerantzean. Gipuzkoan, bi kategoria daude infantil eta kadete mailetan: parte-hartzeko kategoria eta errendimenduzkoa, bat goragokoa. Bi taldeak parte-hartzeko kategorian ariko dira.

Duela 14 bat urte izan zen azkeneko nesken talde bat Arrasaten. Gazte mailako taldea zen, eta, desagertzeaz zegoenez, Bergarako taldearekin elkartu ziren. "Bergara ere egoera berean zegoen, eta herri bakoitzeko sei neskarekin osatu genuen taldea", azaldu du Jon Urrutia *Piti*-k, kadete mailako taldearen entrenatzaileak. "Kurtso bukaera aldera beti joan izan gara ikastetxeetara, eskubaloiko ate irekiak egiten ditugu eta entrenamendu saioak antolatuta. Hala ere, garai hartan oso neska gutxi hurbiltzen zen eskubaloira Arrasaten, eta, azkenean, desagertu egin zen taldea".

Hala ere, egoera hori iaz aldatu zen. Izan ere, kadete mailako taldea sortu zuten 2018-2019 denboraldirako. "Duela bi urte, gizonetzkoen senior taldearen iguera fasea

jokatu genuen, Iturripen, eta mugimendu handia sortu zuen. Horren eraginez-edo badirudi ilusioa piztu zela. Izan ere, hilabete gutxiren buruan, 10-12 neska genituen zapaturako ate irekietara eta entrenamenduetara etortzen zirenak", adierazi du *Piti*-k.

Kadete mailan, hamasei jokalar

Iaz, hamasei neskarekin sortu zuten kadete mailako taldea, eta *Piti* hasi zen entrenatzaile lanetan haiekin. "Taldea sortu berria zenez, iazko denboraldiko helburua izan zen neskak gustura egotea eta eskubaloiaz gozatzea. Lehen denboraldia izanik, kirol emaitzei ez genien garrantzi handirik eman, baina hasieratik bukaerara jokoan eboluzio bat ikusi gura izan genuen", dio. Horrez gain, neskek eskubaloian jarraitzea bermatu ahal izatea ere garrantzitsua izan dela aitortu du entrenatzaileak, eta hala izan da, hamasei jokalarirekin abiatu dute-eta denboraldia.

Aurten, aurrerapausoa eman gura du taldeak. "Iaz, eboluzio handia eduki genuen hasieratik

KADETEEN TALDEA IAZ SORTU ZUTEN ETA INFANTIL MAILAKOA, AURTEN; GIPUZKOAKO LIGAN ARIKO DIRA BIAK

bukaerara. Izan ere, hasieran, 15-20 goleko aldearekin galtzen genituen partiduak, eta denboraldi bukaeran 5-6 goleko aldearekin; lehiatu egiten ginen, behintzat, eta irabazi ere egin genuen, partidu bat. Hori kontuan izanda, aurten, apur bat gehiago exijitzeko moduan gaude, eta goranzko eboluzio hori mantentzea izango da helburua".

Infantil mailan, erronka bikoitza

Infantil mailako hogeit hamar neska hasi dira aurten, eta hori "oso albiste ona" dela aitortu du *Piti*-k: "Oinarrizko eskubaloia ikasteko garairik onena da, eta, guretzako, garrantzitsua da jokalariek infantil mailan jokatzen hastea".

Iaz kadete mailako taldeak izan zuen helburu bera izango du aurten infantil mailako taldeak: "Jokalariek eskubaloira gehiago gerturatzea eta gustura ibiltzea da garrantzitsua". Denboraldi hau, beraz, erronka berri bat izango da, bai jokalarientzat, baita Xabi Lizarralde entrenatzailearentzat ere, entrenatzaile titulua atera berria du eta. Hala ere, gogotsu azaldu da. "Betidanik gustatu izan zait entrenatzailearen lana, eta, aukera hau suertatu zitzaidanean, titulua ateratzeko ikastaro bat egin nuen. Niri asko eman dit eskubaloiak eta kirol honen balioak jokalariei transmititzen saiatuko naiz, ahal dudan heinean", dio. ■



Kadete mailako taldea, Iturripen, entrenamendu batean. Ezkerrean, Jon Urrutia *Piti*; eta eskuinaldean, Aitor Iraeta laguntzailea.



Infantil mailako taldea, Iturripen, Xabi Lizarralde entrenatzailearekin.

Izena eta izana bitez

BALIO KOOPERATIBOEN EZAGUTZA ETA EGOERA

JULEN IRIONDO

ARGAZKIAK: AITZOL LOIOLA, JULEN IRIONDO
ETA IBAI ZABALA

Gauza hedatua bezain onartua da azken urte luzeotan kooperatibismoa, oro har, ez zaiela leialegi izan Arrasateko hasiera haietako intentzio eta espirituari; horiek bigarren maila batean egon direla bai, behintzat. Egia, baita ere, azkenaldian gero eta gehiago direla hori aldatzeko lanean dihardutenak: "Uste dut ariketa doblea dela: kooperatiben eta organoen ariketa, eurena proiektu sozioenpresarial moduan irudikatu eta, zentzu horretan, ahalik eta aurreratuen izateko estrategiak garatzeko; eta, aldi berean, bazkideok ulertu behar dugu gure ongizate pertsonala proiektu kolektibo horren garapenaren markoan kokatu behar dugula".

Mondragon Unibertsitatearen Lanki ikertegiko kide da Aitzol Loiola. Haren ustez, kooperatibismoaren gaur egungo erronka handienetakoa da "kolektiboa kontzientzia kooperatiboa indartzea", eta, baita ere, "organoetan eta arduradunetan profil kooperatiboetan sakontzea".

Gaztea da Asier Uribeetxeberria: 33 urte. Fagor Automation-en bazkide. Irmoki sinisten du kooperatiba desberdin egiten duten, egin behar luketen, ezaugarrietan; kooperatibaren eta

kooperatibisten lanaz gaindiko zeregin eta konpromisoan. Kooperatibako bazkide bilakatu eta denbora batera Kontseilu Sozialean; Lankiren aditu ikastaroan gero; eta ikastaro amaierako lan moduan, proiektu pilotu bat Fagor Automationerako –Usurbilgo plantan martxan jarri zutena–, balio kooperatiboekin eta gizarte eraldaketarekin lotutakoa: "Esperientzia kooperatiboa hasi zenean, *beharraren kooperatibismoa* zen hau: gizartean ze behar zeuden, haiei erantzuteko sortu ziren kooperatibak. Denbora pasa ahala, gizartearen premiak eta lehenetsiak aldatu egin dira: oraingoari *ongizatearen kooperatibismoa* dei diezaiokegu, eta gizartearen ispilua da, individualismo handiagoa dago, jendeak bere premiak aseta dituen heinean lanera mugatzen da harago joan gabe... Baina kooperatibak agente eraldatzaile izan behar du: komunitate baten, bailara baten, herri baten parte garen heinean, inguruan ze behar dauden ikusi behar dugu, eta kooperatiba moduan, ahal

**BALIO KOOPERATIBOAK
BERRIZ ERE LEHEN
LERRORA EKARTZEKO
LANEAN DIHARDUTE
HAINBAT LEKUTAN**

dugun heinean, erantzun bat eman".

Ulma Handling-eko lehendakaria da Oier Araiztegi; kooperatibak izana erantsi nahi dio izenari, eta horretan ari dira: "Azken urteetan garrantzia ari gatzaizkio ematen alderdi sozialari. Orain arte, enpresa izan gara, eta hori ezinbestekoa da: errentagarritasuna, nazioartekotzea, hazkundera; baina, kooperatiba izanda, beste gauza batzuei ere garrantzia eman behar diegu".

Bergarako elikagai bankuarekin dihardute, adibidez: Handlingeko jarduera da soluzio logistikoena, eta biltegiatzearekin lotutako behar informatikoetan lagunduko diete bankukoei; ez hori bakarrik, langileak animatuko dituzte urte amaieran bankuak egin ohi duen bilketa handian jasotako elikagaien sailkapenean lagun dezaten. Aurrera begira, izan daiteke langileen lan egutegian ordu batzuk halakoetarako aurreikustea: "Lagunduz jendea gustura sentitzen bada, lanean ere igarriko da hori".

Amaitzeko, Asier Uribeetxeberriaren gogoeta: "Garrantzi handia du ilusioa bizi mantentzeak; ilusioa duen jendeak elkartzeko joera du, frekuentzia beretan bibratzen duen jendeak elkartzeko joera du, eta elkartutakoan bidean aurrera egiteko gaitasun handiagoa egoten da". ■■■



Aitzol Loiola.



Oier Araiztegi.



Asier Uribeetxeberria.

Manriqueren bizitza janzten

UNAI TELLERIA

ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

ARGAZKIAK: UNAI TELLERIA

Irailaren 13an Kanarietako Perez Galdos antzokian estreinatu zuten *Cesar Manrique el musical* musikaleko jantzien diseinuen arduraduna izan da Unai Telleria elgetarra.

"Jantzien *look* guztiak egin ditut, 30 ezberdin; eta, guztira, 600 bat pieza diseinatu ditut", azaldu du Telleriak. Inspirazio iturria Cesar Manrique bera izan dela dio Telleriak: "Manrique margolaria ezagutzen duenak badaki haren artea nahikoa dela inspiratzeko. Lanzaroteko etxeak, folklorea, Cesar Manriqueren koloreak... hortik hartu nuen inspirazio guztia".

Nola egiten duen lan

Horrelako enkargu bat jasotzen duenean, Telleriak egiten duen lehenengoa izatean da kontaktuan jartzea zuzendariarekin eta produktorearekin: "Zer gura duten, ze ideia duten... galdetzen dut, eta informazio horrekin lehenengo lan bat egiten dut mahaian, bozetoak", azaldu du Telleriak, eta gehitu: "Behin hori aprobaten denean, estudioan sartzen naiz: patroiak egiten dituenarekin, jostunekin, *print*-ak egin behar dituztenekin... Hortik irteten diren ereduak produkzioa egiten hasten gara", dio.

Musikaleko produkzio guztia Kanarietan egin dutela azaldu du Telleriak; baina diseinua Londresen egin zuela.

Ardura handiko lana

Behin musikala estreinatuta, diseinatzailea "pozik" dago emaitzarekin: "Bai; gainera, kritika onak izan ditut", dio. Nabarmendu du Cesar Manrique asko gustatzen zaion margolaria dela eta, horregatik, "gogotsu" hartu zuela haren gaineko musikala egiteko lana.

Musikalak Manriqueren bizitza jasotzen du: Israel Reyes da zuzendaria, eta gidoia idatzi duena, aldiz, Manolo Gonzalez. Hain zuzen ere, Reyesek proposatu zion Gonzalezi elgetarrari emateko jantzien ardura. "Ardura handia" izan da enkargatu dioten lana; batez ere, tamaina handiko musikala delako. "Musikalean ikus daiteke Cesar umea zenean, New Yorkera joan zenean... bere bizitza jasotzen du. Abestiak eta irudiak batzen ditu". Oso produkzio handia denez, elgetarrak ez du erraza ikusten lekuz mugitzea. "Bi aste egingo dituzte Kanaria

**JANTZIEN 'LOOK'
GUZTIAK EGIN DITU
TELLERIAK: 30 BAT
'LOOK' ETA, DENERA,
600 PIEZA INGURU**

Handiko Las Palmas hirian eta ondoren hango irletan ibiliko dira..." dio Telleriak, baina nabarmendu du bere lana "amaitu" dela jantziak egitearekin.

Marka propioa

Moda ikasketak egin zituen Telleriak Bartzelonan, Institut Catala de la Moda zentroan. Ordutik hona, moda munduan sartuta dabil buru-belarri. Ikuskizunetan parte hartzen du, eta marka propioa ere badu: 943UT.

Kanariar irlekin, gainera, lotura berezia du: "Kanarietako zuzendari bat ezagutu nuen antzerkigintzan; ondoren, Kanarietako Inauteriak zuzentzen hasi zen. Hor hasi zen nire lotura Kanariekin eta Inauteriekin", azaldu du. Hain zuzen, Kanarietako Inauterietako erreferente nagusietako bat da Telleria: bere diseinuak janzten dituzte abeslariak eta dantzariak galetan azken 13 urteetan.

Marka propioa ere badu, orain dela urte eta erdi sortua. "Asian saltzen dut gehien. Bost salmenta puntu ditut, eta hil bukaeran Londresko Sohoan denda propioa zabalduko dut", dio. "Jantzi klasikoak egiten ditut, blazerrak, adibidez, baina ukitu berezia ematen diet sport eran janzteko", dio. Elgeta beti du buruan, eta bere markak ere hori dio: Gipuzkoako telefono aurrezenbakia da. ■■■




Musikaleko taldea, Timafayako deabrua tartean.



Unai Telleria.



Mingo Ruano, Manriqueren paperean.



Olga Cerpa, Mestisayko taldekidea.



Kolore biziz osatutako jantziak.

Kopilotu, goi mailan

ALAITZ URKIOLA ETA MAIDER USANDIZAGA

ENEKO AZURMENDI

ARGAZKIAK: KIRIKIÑO SPORT ETA RUBEN MONTORI

Aramaioko Rallysprintak emaitza bikainak utzi ditu Maider Usandizaga oñatiarrarentzat eta Alaitz Urkiola antzuolarrarentzat. Izan ere, Usandizagak irabazi egin du eta Urkiola bigarren sailkatu da. Antzuolarrak, gainera, bigarren postu honekin, Euskadiko Rallysprint Txapelketa irabazi du kopilotuetan. "Aramaioko Rallysprintean inoiz lorturiko posturik onena lortu dugu. Sekula ez dugu bigarren postua eskuratu, eta denbora onena ere gurea izan zen. Gainera, txapelketa irabazteko balio izan dit eta oso pozik nago", dio. Modu honetan, bigarren ez eskuratu du txapela Urkiolak, 2015ean ere irabazi zuen eta.

Hain zuzen ere, 2015ean hasi zen Aingeru Castro pilotuarekin, eta aurten, bosgarren denboraldia dute elkarrekin. "2014an jokatu genuen lehen lasterketa elkarrekin, ikusteko nola moldatzen ginen. Azken finean, bere helburua aurrean ibiltzea da eta proba egin nahi zuen nirekin. Ondo moldatu ginen, eta 2015ean elkarrekin egin genuen denboraldia, baita ordutik aurrerako guztiak ere".

Rallysprint txapelketan ez ezik, rally txapelketan ere elkarrekin ari dira Urkiola eta

Castro, eta hor ere txapela eskura dute biek. "Urriaren 12an Gernikan puntu batzuk eskuratzearrekin nahikoa izango dugu biok", azaldu du.

Elkarrekin ondo moldatzen direla aitortu du Urkiolak, eta hori "ezinbestekoa" dela. "Oso lehiakorrek gara biok, eta gauzak ondo prestatzea gustatzen zaigu. Lan handia egin behar izan dugu, baina gero, lan horrek bere fruituak ematen ditu".

Bestalde, pilotu moduan ere aritu da denboraldi honetan antzuolarra, Gorlan. "Oso esperientzia polita izan da, errepikatuko modukoa".

Datorren denboraldiari begira, Castrok eta Urkiolak "kanpoko txapelketaren bat" egiteko asmoa azaldu dute. "Ahal bada, pilotu moduan hemen lasterketaren bat egitea gustatuko litzaidake".

Aurten, hiru pilotu ezberdinekin Maider Usandizaga oñatiarra, bestalde, "alde batetik bestera" ibili da aurtengo denboraldian, eta hiru pilotu ezberdinekin: "Alberto Marcosekin hasi nintzen; gero, Gaizka

ANTZUOLARRA ETA OÑATIARRA RALLY ETA RALLYSPRINT TXAPELKETETAN ARI DIRA KOPILOTU

Barrenarekin; eta Enrique Barrenetxearekin ari naiz orain". Hain zuzen ere, azken honekin bi rallysprint egin ditu, Azpeitian eta Aramaion, eta biak irabazi dituzte.

Aramaioko Rallysprinta, gainera, berezia da oñatiarrarentzat, han egin zuen-eta debuta iaz pilotu moduan. "Asko gustatzen zaidan proba da, denetarik daukana, eta afektu berezia diot. Oroitzapen politak ekartzen dizkit, eta polita da Aramaion lehiatzea", dio.

Aitortu duenez, aberasgarria izan da hiru pilotu ezberdinekin aritzea. Izan ere, bakoitzetik zerbait ikasi duela dio. Hori dela eta, datorren denboraldiari begira, zalantzak ditu. "Enriquerekin asko disfrutatu eta ikasi dut, baina txapelketa irabazteko lehian ibiltze horrek presioa eragiten du, ardura handia da. Gaizkarekin, ondo pasatzeaz gain, presio gabe noa eta ikasteko aukera gehiago dudala esango nuke".

Denboraldi hau bukatu aurretik, baina, baditu beste hainbat proba. Batetik, Euskadiko Rallysprint Txapelketako azkena, azaroaren 2an, Ugaon, nahiz eta aitortu duen Enrique Barrenetxeak zalantzak dituela parte hartu edo ez. Eta bestetik, Euskadiko Rally Txapelketako bi proba jokatu ditu Gaizka Barrenarekin, Gernikan eta Zamudion. ■



Alaitz Urkiola eta Aingeru Castro ezkerrean, eta Enrique Barrenetxea eta Mainer Usandizaga erdian, Aramaioko sari banaketan.



Barrenetxea eta Usandizaga, Aramaion.



Castro eta Urkiola, Gabirian.

Maddi Arlazon

JONE OLABARRIA

IRUDIAK: MADDI ARLAZON

Maddi Arlazon oñatiarrak 14 urte ditu eta dagoeneko badu esperientzia taula gainean. Duela urtebete, "ezustean", Leire Gonzalez zumarragar gaztearekin batera Leima bikotea abiarazi zuen.

Nondik sortu zen Leima?

Leirek eta biok kanpin berean igarotzen ditugu oporrak, eta, arratsalde batean, bertan geundela, Leirek gitarra ekarri zuen. Abesti bat jotzen hasi zen, eta nik, banekienez, kantuari ekin nion. Bertan zeuden lagunek esan ziguten oso bikote polita eginen genuela, musikalki oso ondo zegoela, eta kontua zabaltzera animatu gintuzten.

Hortaz, sare sozialak ezinbesteko tresna dira zuentzat?

Zalantza barik, Instagram bidez eman dugu ezagutzera gure lana. Lehen kantua igo genuenean, nahiko harrera ona izan zuen, eta gero eta jende gehiagok jarraitu zuen kontua. Erakusleho garrantzitsua dira sare sozialak gaur egun, baita inspirazio iturri ere. Ate dezente ireki dizkigute sare sozialek, kontzertu txikitxoetarako eta gure inguruko jendearen artean ezagutzera emateko, batez ere.

Urtebete daramazue proiektu honekin, baina betidanik aritu zara kantuan?

Era serioagoan, Leima sortu zenetik nabil kantuan, horrela da. Dena den, nik betidanik kantatu izan dut, nire kabuz. Solfeoan hasi nintzen, baina ez zitzaidan gustatzen eta laga egin nuen; horrenbeste, ez dut inoiz hezkuntza musikalik jaso.

Nola definituko zenuke zure estiloa?

Zaila da, oraindik ez dakit estilo finko bat dudan ere. Pop estiloko abestiak gustatzen zaizkit, entzuteko eta abesteko, estilo horretan sentitzen naiz erosoan. Dena den, hor barruan ere nahiko aldakorra naiz, eta abeslari edo talde bakar bat aukeratzea zaila egiten zait.

Batez ere, ingelesezko kantuak jotzen dituzue...

Hala da, ingelesez kantatzen dugu, orokorrean, nahiz eta euskaraz ere asko aritzen garen. Niri, betidanik gustatu izan zaizkit ingelesezko talde eta abestiak, eta nahi barik irteten zait, askorik pentsatu gabe.

Orain arte, cover-ak egin dituzue, baina hasiak zarete konposatzen, ezta?



Leire eta Maddi entseguan.



Maddi eta Leire, kontzertu bateko irudietan.



Bai, hasi berri gara zerbait konposatzen, gutxinaka. Leirek akordeak jotzen ditu eta nik, irteten zaidanarekin, letra jartzen diot. Dena den, oraindik ez da ezer oso serioa, ondo pasatzeko egiten dugu, barrutik irteten zaigulako.

Hainbat kontzertu eman dituzue dagoeneko....

Oraingoz, hiru jo ditugu, kanpinean eta hemen, Oñatiko nire eskolako egunean ere eskaini genuen eta orain, jaietan arituko gara.

Zein da hemendik aurrerako plana?

Egia esanda, horrela jarraitzea da, momentuz, helburua. Ahalik eta jende gehienak gure lana ezagutzea eta gustuko izatea nahiko genuke, besterik ez. ■■■



Eskolako egunean egindako emanaldia.

Borrokalari festazalea

YOGURINHA BOROVA 'PERFORMER'-A

AITZIBER ARANBURUZABALA

ARGAZKIAK: SERGIO MARCOS ETA E.G.

Egunez eta makillaje barik, Eduardo Gabiña argazkilaria da; izatez Laudiokoa, baina orain dela urte asko Bilbo du bizitoki. Gauean, eta agertoki gainean, berriz, Errusiatik etorri zen Yogurinha Borova artista koloretsua bilakatzen da.

Pertsona bera diren arren, ez dutela elkarren artean antzirik dio Gabiñak: "Oso-oso lotsatia naiz ni, Yogurinharen aldean oso motela eta gauza askorekin beldurtzen dena". Bestelako bihurtzen da, baina, Borovaren arropak soinean dituenen: lotsa barik eta gogoz abesten ditu berdintasunaren aldeko leloak eta ezberdin izateak eragiten dituen injustizien kontrako aldarrikapen zorrotzak, betiere, modu eta doinu festazale eta alaiekin.

Oñatiko jaietan izango da, urriaren 4an, Egun Morean, txosnagunean, 22:00etan hasita.

1994a ezker agertoki gainean

Las Fellini Bilboko kabaret taldearen baitan jaio zela dio Yogurinha Borova: "Nire asmoa ez zen aktore edo *performer* izatea, baina eurak agertu ziren, eta hala hasi nintzen. Hasieran, jolas moduko bat zen niretzat, eta asko gozatzen nuen; baina, geroago, taldeak eta nik asmo ezberdinak genituela konturatu, eta nork bere bidetik jarraitzea erabaki genuen".



Eduardo Gabiña argazkilaria.

Gaur egun, lanordu gehienak argazkilaria baino gehiago, Borova moduan egiten ditu, eta, zaila den arren, erabakiarekin gustura dagoela dio: "Euskaraz abestu eta haurrekin lan egin nahi nuen; hala ari naiz orain, eta pozik nago. Oso ondo pasatzen dut, baina lanbidea ere bada, eta autonomia naiz; hortaz, ikuskizunetan ez ezik, sare sozialetan ere orduak sartzen ditut horiek iragartzeko eta kantu berriak igotzeko, Yogurinha jantzita argazkilaria moduan ere ibili naiz inoiz...".

SEXU ANIZTASUNAREN ALDEKO HITZEKIN ETA DOINU FESTAZALEKIN YOGURINHA BOROVA, OÑATIKO TXOSNETAN

"Borrokan jarraitu beharra"

Hastapenetan abesten zituen kantuak "petardoagoak" zirela dio, eta "aldarrikatzaileagoak", berriz, ondoren etorri direnak: "Egungo gizartea ikusita, asko dago oraindik egiteko. Egia da gauza asko aldatu direla, baina argi daukat oraindik borrokatu egin behar dugula arlo askotan. Vox alderdi politikoa dago orain, nahiz eta halako jendea beti egon den. Sarritan joaten naiz Torremolinoseira, eta eurentzako beti izan naiz terrorista. Homosexualitateari buruz berdina esan dezakegu: Valladolidera joaten bazara Yogurinha moduan jantzita... Eta hirietan, tira, baina herrietan jende asko dago oraindik armairuan. Erasoak ere hor daude, eta, zorionez, gaur egun, salatzen direnez, badakigu, behintzat, daudela; lehen, ez zen inor ausartzen".

Gabiñak ere entzun behar izaten ditu gustatzen ez zaizkionak, eta, kontatzen duenez, zoritxarrez, hala zen haurra zenean ere: "Ez dakit horregatik naizen hain lotsatia, baina gogoratzen dut eskolan ezkutuan egoten nintzela, atzean. Mutila ala neska nintzen galdetzen zidaten. Azkenean, ohitu egiten zara, baina bai, nik ere gauza asko ikusi ditut. Ondo ulertzen dut homosexual asko zergatik diren aktore onak. Nire bizitza ez da perfektua, lotsatia eta beldurtia naiz; bada, mozorroarekin bada



Yogurinha Borova *performer*-a, Bilbon.

ere, mezu horiek zabaltzen saiatzen naiz. Haurrekin abestu nuen *Sentipenak askatu* kantua, adibidez, nitaz gain, erreferente gehiago daudela erakusteko egin nuen. Ez naiz bakarra".

Borovak ez du erantzun bera jasotzen haurrekin edo helduekin dagoenean. "Umeak lehenengo minutuetan flipatuta daude, begira-begira geratzen dira, baina gero, segituan sartzen dira; eta jarrera hori ez badute, normalean, atzean dituzten helduek ez dutelako normaltzat hartzen izaten da; horretarako nago, ni bezalakoak daudela erakusteko. Helduen saioetan, berriz, hiria edo herria den eragiten du, eta herritik herrira ere asko aldatzen da. Orain dela bi aste, Orozkon egon nintzen; testosterona asko zegoela nabaritu nuen eta zaila zen ikuskizuna zelan hasi

asmatzea, baina, azkenean, oso ondo joan zen. Bukaeran, jendea aurreraino etorri zen".

Ikuskizuna bukatutakoan, ikusleen artean kalimotxo bat gustura hartzen du; afaldu aurretik eta ondoren, mozorroa kenduta, jai-giroan murgiltzen da. "Polita izaten da; gehienek ez naute ezagutzen; kar, kar".

Hiru disko kalean

Abestu egiten du, baina ez dela abeslaria dio, musika tresnarik ez duela jotzen gaineratuta; hala ere, badaki nori eskatu egiteko,

MUTILA ALA NESKA ZEN GALDETZEN ZIOTEN HAURRA ZELA; BERAK ERE GAUZA TXAR ASKO IKUSI DITUELA DIO

eta agertokian bakarrik defendatzen ditu gero. "Egia esan, izugarri gustatzen zait musikagintza. Oso esperientzia politak ditut. Behin, adibidez, *Ser actriz* izeneko abestia egin nuen eta hasieran ez zitzaidan askorik gustatzen; hortaz, Interneten, blog petardo batean, abestia osatzea edo bertsioak egitea proposatu genuen, eta, era berean, Placebo, Madonna eta halakoek nahasketak egitea. Halako batean, Madrilen lanean nembilela, Placeboko gitarrak-jolearen senargaia ni ikustera etorri zen eta haren bitartez *remix*-a egiteko eskatu eta urtebetera jaso nuen".

Bost urtean sortu zituen kantuak biltzen dituen *Carbono 14* (Gor, 2011) lanean dago kantu hori, eta ondoren etorri ziren *Poliamor* (Gor, 2017) eta *Amari* (Gor, 2017). ■

Esperantza, elkartasuna eta adorea



La guerra de Catherine

Egilea: Julia Billet eta Claire Fauvel

Argitaratzailea: Astronave

Argitaratze urtea: 2018

Orrialdeak: 160

Generoa: Komikia



SAIOA OJANGUREN OJANGUREN

ARRASATEKO UDAL BIBLIOTEKAKOIA

La guerra de Catherine Julia Billet-ek idatzi du eta marrazkiak Claire Fauvel-ek egin ditu. Julia irakaslea da eta idazten ditu nobelak, ipuinak, albumak, komikiak, poesia... Fauvelek ilustrazioa eta Zinema Animazioa ikasi zituen eta 2015ean egin zuen salto komikien mundura.

Gazteentzako komiki onenaren saria jaso zuen iaz, Angulemako festibalean.

Komikian, Rachel-en historia kontatzen da. II. Mundu Gerra abian da eta Rachel judu eskola batean utzi dute gurasoek. Garai horretan, argazkilaritzarekiko pasioa deskubrituko du eta gertutik ezagutuko du ihes egitera behartuta daudenen bizitza gordina. Paris okupatzen hasi direnean, izena aldatu eta soldaduengandik ihes egin beharko du. Erresistentziaren sare batek lagunduta, Frantzia

osoa zeharkatuko du, argazki kamera aldean duela. Hazi egingo da, bere buruarengan konfiantza hartzen joango da eta erresistentziaren lanaren gaineko erreportaje bat egingo du; besteen bizitzak salbatzeko eurenak arriskuan jartzen dituzten eta askatasunaren alde lan egiten duten heroi anonimoen gainekoa. Bizirik irauteko borrokaren unerik esanguratsuenak jasoko ditu, urte haietako pribazioak, beldurrak eta bakardadeak.

Orokorrean, nire alabek ez dute gustuko gerra garaietan oinarritutako istorioak irakurtzea, baina autoreak liburuan ematen duen gatazkaren ikuspegi ezohikoak konbentzitu egin ditu/nau. Izan

ERREALITATEAREN ETA FIKZIOAREN ARTEKO ANTZEKOTASUNAK AZALTZEN DITU AUTOREAK BUKAERAN

ere, oso irakurketa entretenigarria izan da.

Landutako gaiak oso gogorrak dira, baina perspektiba baikorretik daude landuta. Istorioaren gakoak dira esperantza, zintzotasuna eta elkartasuna, besteak beste.

Marrazkiak sinpleak eta atseginak dira eta guztiz bat datoz nobelan zehar zabaldu nahi den gaitzite-mezuarekin.

Historia erreal batean oinarritutako komikia da eta autoreak, liburuaren bukaeran, errealitatearen eta fikzioaren arteko antzekotasunak azaltzen ditu. Oso efektiboa den mezua zabaldu nahi du: esperantzaz, elkartasunez eta adorez betetako mezua.

Ezinezkoa da ez emozionatzea, komikian zehar ez galtzea eta ziurgabetasuna, esperantza eta poza ez sentitzea. Gazteei zuzendutako liburua da, baina adin guztietarako gomendagarria dela uste dut. ■■■

Goiena Klubeko irailleko sariak!



Chromecast

Parte hartzeko sariaren izena:
Chromecast



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
CANTINERIA



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktua.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.fairtrade.org
Bidezko Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus

Whatsapp: KLUBA "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarren dagoen L. 13/11/2003 legearen arabera, piktogramatik gisara datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zibiletzaren IT enplegi automatizatutako sarietara bidaltzen dira. Datu-bilaketak honen helburu bakarra da indarren dagoen datuaren gestioa.

Eskubide luongo datu dibulgazioa, helburu zuzeneko edo ez zuzeneko, helburu komertzialak dituzten kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidezu zaituz 2019ko irailetik aurrera: 31€
Deitu: 943 25 05 05
kluba@goiena.eus

goienakluba

Labe arabiar bakarra

ESKORIATZAKO ZUBIATE LABEA

MIREIA BIKUÑA MADRID

ARGAZKIAK: M.B.M.

XX. mende hasieran, ontziak kalean, eguzkitan, lehortzen ziren herri askotan. Baina erabilera eta ohitura berriak zeramikagintzaren eta buztingintzaren gainbehera ekarri zuten. Hori horrela, ontzigile askok euren buztinolak itxi behar izan zituzten.

Felix Zubiato eskoriatzarrak 1910ean utzi zion zeramika egiteari. Garai hartan ez zuen jakingo, ordea, etorkizunean buztingilearen figura eta lana ezagutzeko benetako altxorra uzten ari zela. Zeramika egiteari utzi eta 100 urte geroago, atek zabaldu zituen berriro labeak, Ibarraundi museoarekin batera kudeatuta.

Gipuzkoako bakarra

La cerámica vasca liburuaren egile Enrique Iabek aurkitu zuen labea, 1974an, buztinola osatzen duten gainerako elementuekin batera. Besteak beste, tornu-gelak, lehorketageuneak eta zeramika biltegia. Dena den, egun zutik dagoen elementu original bakarra Aranzadik berritutako labea da. "Zubiato labea Euskal Herrian dauden zeramika labeen artean eredu onenetarikoa da. Gipuzkoan gorde den labe bakarra, alegia", esan du Ibarraundi museoko teknikari Eneritz Zubiak.

Arabiar motako labe tipikoa da Eskoriatzakoa. "Labe mota horiek tiro bertikala zuten, eta goiko zatia zabalik. Tiroa bete behar zenean, orduan itxi egiten zuten", azaldu du Zubiak. Iaberen aurkikuntzarekin, labearen barruan eta inguruan topatutako zeramika zatiek erakusten dute erabilera arrunteko zeramika ekoizten zela Zubiaten.

Hiru zati ditu

Labeak ia lau angeluko oinplano perfektua du. Horma bikoitza du eta hiru zati bereizten dira, argi eta garbi. Beheko aldean, egosteko ganbara dago. Sua egiten zuten gela, alegia. 1.000 graduko tenperaturara heltzen zen. Horren ondorioz, harriak beiratu egin dira.

Ostean, beroa proportzionalki mantentzeko harriz egindako parrila bat dago. Azkenik, goiko aldean, egosteko gela dago. Buztinezko piezak han jartzen zituzten 10-15 bat ordutz. Buztinaren eta artisauaren arabera aldatzen zen egosketa prozesua. "Erretokia eta parrila

**1910EAN FELIX
ZUBIATEK UTZITAKO
LABEA AURKITU ZUEN
ENRIQUE IBABEK,
1974AN**

egoera oso onean zeuden topatu zituztenean. Bereziki, parrila. Ia osotasunean mantentzen zuen ganberen arteko beroaren komunikazio eta banatze sistema osoa. Horregatik, mota honetako produkzio azpiegituren adibide garrantzitsuenetakoa da", azpimarratu du Ibarraundiko teknikariak.

Sei hilabete

Egunero etxean erabiltzeko tresnak egiten zituzten Zubiaten: platerak, katiluak, pixontziak, txerriaren zatiak gordetzeko ontziak... Sei hilabete inguruko prozesua behar izaten zuten buztina lortzetik pieza bukatu arte. "Bi buztin mota erabiltzen zen: gorriak malgutasuna ematen zion ontziari eta zuriak, sendotasuna. Artisauak berak erabakitzen zuen proportzioa". Lehengaia Esteibar baserritik ekartzen zuten herrira, udazkenean eta udaberrian.

Buztina ahalik eta ondoen garbitzeko, iragazki sistema erabiltzen zuten. Hainbat filtrotatik pasa ostean, buztina garbi geratzen zen. Ostean, biltegiara eramaten zuten, eta tornura eraman aurretik, masa guztia oratu egiten zuten. Pieza bakoitza egiteko beharrezko buztin zatia markatu egiten zuten –pieza bakoitzari pella deitzen zitzaion–, eta orduan hasten zen artisauaren artista lana, ontzia lortu arte. ■■■



Zubiata labearen kanpoko aldea, Bitoriano Larrañagaren etxeko ontziekin.



Labearen sarrera.



Pitxerra.



Lanera tornua.

Joerak




JON IRIZAR

Ez da gehiegi esatea gaur egun gizarteak bultzatutako hainbat jokabideren morroi bizi garena. Ez bere osotasunean, ez guztiok, ez une oro, baina badira gure eguneroko erabakietan bide bera hautatzera garamatzaten arrazoiak. Erabaki kontzienteez bideratuak askotan, inkontzienteez hala behartuta maiz. Joerak. Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren arabera, *zerbaiten bilakaerak hartzen duen norabidea* bezala definitua.

Informazioaren teknologien hedatze eta gizarteratze garaiotan, interesgarria deritzot gaur egun euskarri digitalek hartu dituzten joerak aztertzeari. Etengabekoa da bilakaera, eta sarritan galdetu izan diot ene buruari ea nork ezartzen duen norabidea: teknologiak edo gizarteak. Oiloa edo arrautza sortu zen lehenago? Batek jakin.

Hala ere, bada azkenaldian deigarria iruditu zaidan bilakaera bat. Teknologiak hala bideratuta akaso, gizakion jarrerak horrela eskatuta ziur aski. Soiltasuna.

Enpresa komunikazio orokorretatik aplikazio sofistikatuetaraino, marka baten lerro grafikoan adierazletatik kanpaina



BEHANCE.NET / PMK

politikoen leloetaraino, konplexutasuna albo batera utzi eta soiltasunean datza joera. *Gutxiago gehiago da* kontzeptuan datza bilakaera. Informazio gaindosiaren ondorioa dela esango dute askok, baina teknologiaren oiloak edo gizartearen arrautzak aurretik izan diren jakin gabe, jakina da amaitzen ari dela zehaztapen eta xehetasun zenbatezinen aroa. Bai, behintzat, teknologia digitalaren alorrean. Erabiltzailearen esperientzia da aldaketaren oinarria, eta intuizioan oinarritutako jokamoldeei esfortzu txikienarekin erantzunik

KONPLEXUTASUNA ALBO BATERA UTZI ETA SOILTASUNEAN DATZA JOERA GAUR EGUN KOMUNIKAZIOAN

handiena ematean datza kontzeptua.

Eboluzio horren adierazle diren hainbat kasu argi identifikatu daitezke. Deigarria da Apple gailu elektronikoen erakunde estatubatuarraren produktuen gizarteratzea, Correos posta zerbitzuaren *rebranding* prozesua bezalaxe. Eta zer esanik ez aplikazio mugikorren esparrura erreparatuz gero. Sare sozialen aplikazioetan ikonografia da erabiltzailearen esperientziaren ardatz, mugikorra kreditu txartel gisa erabili daitekeen garaiotan, eta gutxirekin asko egin daitekeen adibide garbia da Egunean Behin aplikazioa. Simplea, erraza, soila.

Goraipatzekoa da joera honen funtsa, sarritan zailagoa baita konplexua simple bilakatzea, simplea dena konplexu baino. Ikusiko dugu nora garamatzen etorkizunak. ■■■

100 megapixe leko kamerak mugikorrean


Mugikorretako kameraren kalitateak pisu handia izan ohi du erosketa egiterakoan. Horregatik, marka guztiek esfortzu handia egiten dute argazkien bereizmena hobetzeko.

Azkenaldian, mugikorretan gailentzen den estrategia lente kopurua handitzea da. Gaur egun, ia mugikor berri guztiek dituzte bi edo hiru kamera atzeko aldean eta dagoeneko hainbat markak erakutsi dituzte lau eta bost lentekoak ere.

ISOCELL Bright HMX sentsorea

Lente kopurua hazten hasi aurretik megapixeletan jarri ohi zen fokua eta markek arlo horretan ere lanean jarraitzen dute. Xiaomi eta Samsung izan dira 108 megapixe leko sentsorea proposatu duten lehenak. Bi enpresen arteko elkarlanari esker, mugikorrarekin 12032x9024 pixeleko irudiak ateratzeko aukera eskainiko dute laster.

Horretaz gain, 64 mpx-ko mugikorrerako kamera lau koitza ere patentatu dute. Urte amaieran Indian merkaturatuko dira lehenengoz.



Ordenagailuak denbora asko behar du pizteko?



Erabiltzaile askok izan ohi duten arazoetako bat da ordenagailua pizterakoan igarotzen den denbora gero eta luzeago izatea.

Gauzak azkar eskuratzera ohituta, itxaron beharreko segundo edo minutu horiek arazo bilakatzen dira, askotan.

Gainkarga eragiten duten programak

Hainbat programa ordenagailua piztearekin batera exekutatzeko dira; zenbat eta gehiago izan, orduan eta denbora luzeagoa beharko du gailuak martxan hasteko.

Horregatik da garrantzitsua tresna-barran gehiegizko karga eragiten duten programa horiek identifikatzea eta horien aktibatze automatikoa desaktibatzea. Horretarako, atazan administratzailelari jo behar da; bertan ikus daiteke ordenagailua piztearekin batera abiatzen diren programen zerrenda. Horien artean daude, besteak beste: Skype, Whatsapp, jokoak, Google Drive, Dropbox, bideo zein argazki editoreak...



EGILEA: GARBINE UBEDA

Zirriborroa

Zein marrazki osatuko zenuke zirriborro honetatik abiatuta? Beharbada, zuhaitza? Manikura egin berri duen esku apaindua, eraztunak eta guzti? Edo nahiago duzu munstro baten atzapar beldurgarria? Hartu margoak eta ekin lanari!



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/



Nare Sanchez Lete
Agurain. 3,660 kilo.
Irailaren 21a. Gurasoak:
Ane eta Alain.
Argazkian, Nare txikia,
lasai-lasai lotan.



Beñat Romero Miguel
Bergara. 3,670 kilo.
Irailaren 19a. Gurasoak:
Alaine eta Bittor.
Argazkian, gurasoekin
eta osaba lbairekin.



Aitana Gallego Holguin
Oñati. 3,400 kilo.
Irailaren 19a. Gurasoak:
Cindy eta Jose Vladimir.
Argazkian, Aitana,
aitarekin eta amarekin.



Danna Morillo Peña
Arrasate. 3,390 kilo.
Irailaren 17a. Gurasoak:
Nataly Maria eta Manuel.
Argazkian, Danna,
aitaren besoetan.




Beñat Abaroa De los Santos
Oñati. 3,450 kilo.
Irailaren 17a. Gurasoak:
Ane eta Aitor. Argazkian,
Beñat eta aitaren
besoetan.



Noa Gomez Miranda
Aretxabaleta. 3,600 kilo.
Irailaren 16a. Gurasoak:
Joana eta Ruben.
Argazkian, amarekin
goxo-goxo.



June Orueta Gonzalez
Oñati. 2,550 kilo.
Irailaren 16a. Gurasoak:
Naiara eta Joseba.
Argazkian, June, anaia
Aimarrekin.



Sara Ait Souabni Gonzalez
Arrasate. 2,700 kilo.
Irailaren 16a. Gurasoak:
Leire eta Rahal.
Argazkian, Sara txikia,
lotan.

Jaio da!

**Eman jaiotzen berri PUNTUAN eta Interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz
GOIENAREN egoitzara.**

Asteleheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik argitaratuko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Hemen

GARBIKETAK

ZURE
KONFIANTZAKO
GARBIKETA
ENPRESA



Intxaurtxueta 16, behea
ESKORIATZA

T. 943 71 48 45

www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com